

ELKARRIZKETA: PEPA BOJO, MENOPAUSIARI BURUZ HITZ EGITEN

Arrasate

P R E S S

1997ko
urtarrilak 17
347. zenb.



Otalora kalea, 31
ARKO
egoitza berrian

KULTURA
GOZATEGI ANAIK

IKUSPEGIA
KARMELE PEREZ

30 GALDERATAN
MIKEL ARANA

IRITZIA
JABI LUENGO

URTE BERRI ANTZERKI BERRI!

Gaur, urtarrilak 17, (ostirala) Gaueko 10.30etan EUSKARAZ
Urtarrilak 18 (larunbata) Gaueko 10.30etan ERDARAZ
Urtarrilak 19 (igandea) Gaueko 8.00etan ERDARAZ

TXALOk aurkeztuta
AGATHA CHRISTIEren Misteriozko Komedia

*LA
RATONERA*

*XAGU
TRAMPON*



Nor da hiltzailea?



ARRASATEKO UDALA

Balantze eta indar berrien garaia

Urte berriari hasiera ematerakoan, iragandakoaren balantzea egin ondoren nork ez du pentsatu "hau da bizitzaren abiadura", edo, "ene!, hainbat urte ditut jada!", edo, "bizitzak ihes egiten ditu eta ezin dut ezer egin". Eta zenbait ez zaio hanka azpian amildegia zabaldu edo zenbaitek ez du bere gorputza hutsean sentitu bere bizitzaren zergatia eta nondik norakoa ulertzen ez duelako? Neronek behintzat askotan sentitu dut hutsaren ikara ezatsegin hori. Eta badirudi Gabonak garai aproposak direla gisa honetako gogoetetarako. Behar bada nik neuk pentsatzeko denbora gehiegi izan dudalako. Gabonek beste zenbait burutapen ere



Karmele Perez

"Gaur guztiak biziko bagenitu ez al genuke poliki-poliki hanka azpiko hutsune hori beteko?"

badakarte. Bake eta borondate oneko garai honetan, telebistak, filmeek, eskapareteek, familiareko ohiko bazkari-afariek... egunerokotasuna eten eta zorion eta ilusioaren erresumara eraman nahi gaituzte; zoritxarrez, hainbestetan salatu ohi dugun kontsumismoaren atzaparretan ere jaurtikitzen gaituzte. Batzuek pozez hartzen ditugu egunok, hala-holako egunerokotasun eta ohiko nekealdietatik urrunduz oasiak bailiran; benetan pentsatzen dugu egun hauek zerbait magikoa dutela: egia ote? Beste batzuk, berriz, egun hauek sortarazten dizkiguten nostalgia eta kontraesanek gaintitzen gaituzte. Badirudi gero eta gehiago garela egun

hauek ulertzen ez ditugunok.

Gaur, egunerokotasunean murgildurik gaude berriz. Gaur ere ez al du magikoa izateko eskubiderik? Gaur ez al dut izango zu zoriontzeko aukerarik? Gaurko momentu guztiei ere ez al diegu garrantzirik emango minutu guztiak etengabe ihes egin ez diezaguten? Gaur baita dugun gauza bakarra, atzo dagoeneko iragana baita eta bihar ez baita oraindik iritsi. Gaur guztiak biziko bagenitu ez al genuke poliki-poliki hanka azpiko hutsune hori beteko? Pausoz pauso eta proiektuz proiektu betetzen baitugu gure bizitzaren zakua.

Urte berri bati hasiera eman diogun honetan, inoiz baino zaharragoa naizen honetan, nire bizi-proiektuaren beste kapitulu bat zabaltzen ari den honetan, herriarekin, nazioarekin eta mundu zabalarekin dudak konpromezu eta erantzukizuna berritu nahi nituzke, aurrekoaren balantzea egitea garrantzitsua baita, baina are garrantzitsua goa ahuldu gabe aurrera egitea.



ARKE
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Azoka kalea, 1
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behar-
do Kortabarría. **Kazetariak:** Maria Agirre, Ixaro Zubil-
laga, Maider Egües. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kai-
tín Alliende (Tfnoa: 77 09 15). **Administrazioa:** Iker-
ne Altube (Tfnoa: 77 09 15). **Diseinua:** Gaior Arana.
Kolaboratzaileak: Ander Etxebarria, María del Cam-
po, Iban del Campo, Ixaro Arriola, Rosa Mondragon,
Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azka-
rate, Aitor Orobenkoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria
Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Alliende, Besai-
de M. E., Karmelo Uribearen, Fidel Berebizbar, Bixente
Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Ago-
rria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde
Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez,
Kopi, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo. **Bana-
keta arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa:
77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.200.
Logo-Gordailua: 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko
kontzertatua. **Inprimategia:** Gerlu Koop. E. (Zubilla-
ga, Oñati). **ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien
erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabi Luengo.



Arrasateko Udaleren
laguntza



Gipuzkoako Foru
Aldundiarren laguntza



Eusko Jaurlaritzako
Kultura
Sailaren laguntza

347. zenbaki honetan

1997ko urtarrilaren 17an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	12/14	Baserriko lanak.....	26
Irakurlea idazle.....	6	Txutxumutxuak.....	15/16	Azoka plaza.....	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia.....	17/19	Kulturaren txokoa.....	30/31
Astearen erreposoa.....	11	Kirolak jokoan.....	20/23	Foto zaharra.....	34

Ikuspegia

Karmele Perez.....3

Euren ikuspuntutik

Jabi Luengo.....8

Hogeita hamar galderatan

Aitor Arana.....30

Aurrez aurre

Pepa Bojo.....26/27

Asteko gaia

Arrasate Komunikabideak etxe berria estreinatu.....17/19

Otalora kaleko etxe honen
lehengo bi pisuetan
egongo dira
hemendik aurrera
Arrasate
Telebista
eta
Arrasate
Press.



17

ostirala

■ ZINEA

Feeling Minnesota Alai Zineman 7etan eta 10etan.

■ ARKAUZEN ALDEKO MANIFESTAZIOA

Amnistiaren aldeko Batordeak antolatuta Josu Arkauz preso arrasatearraren aldeko manifestazioa. Irteera: 7.30etan Herriko Plazatik.

■ XAGU TRANPA ANTZERKIA

Txalo Produksioak-en eskutik, Xagu Tranpa antzezlanana Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 1.000 pta, Gazte Txartelarekin 800.

18

larunbata

■ ZINEA

Pinocho Alai Zineman 5etan. *Memoria Letal* 7.30etan eta 10etan.

■ EMAKUMEAK GESALIBARREN

EKIN emakume taldeak deituta, arratsaldeko 4etan Gesalibarko Gentil Ola elkartean auzoko andreekin bilera

■ AHTren KONTRAKO MANIFESTAZIOA DONOSTIAN

AHTren Aurkako Asanbladak antolatuta manifestazioa Donostian arratsaldeko 6etan. Arrasatetik autobusa aterako da arratsaldeko 4etan, Garibaitik.

■ IGERIKETA TXAPELKETA

Arratsaldeko 4etan Musakolako kiroldegian, aletadun igeriketa txapelketa.

■ ANTZERKIA

Txalo Produksioak-en eskutik, Xagu Tranpa antzezlanana Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera 1.000 pta, Gazte Txartelarekin 800.

19

igandea

■ ZINEA

Pinocho Alai Zineman 5etan. *Memoria Letal* 7.30etan eta 10etan.

■ ANTZERKIA

Txalo Produksioak-en eskutik, Xagu Tranpa antzezlanana Amaia antzokian arratsaldeko 8.30etan. Sarrera 1.000 pta, Gazte Txartelarekin 800.

20

astelehena

■ ZINEA

Memoria Letal Alai Zineman 7etan eta 9.30etan.

■ SAN SEBASTIAN EGUNA

Herriko hainbat ikastetxetan tanborrada egingo da San Sebastian eguna ospatzeko.

LAN POLTSA

Arrasateko Udalak, sortzen diren aldi-ko premiei erantzun ahal izateko Lan Poltsa hau osatzeko deialdia egin du:

• **Udaltzain laguntzaileak**

Oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea urtarrilaren 2an bukatuko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila

21 asteartea

■ **ZINEA**

Memoria Letal Alai
Zineman 7etan eta 9.30etan.

22 asteazkena

■ **AURKEZPEN HITZALDIA**

AEDK antolatuta, Euskararen Unibertsoa mugimenduaren aurkezpena Monteironen arratsaldeko 7etan. Talde eragileko bi kide arituko dira hizlari.



ARRASATE

ATB oraindik muntaia lanetan

Noiz hasi behar du ATBk emititzen berriro? azkenaldian batek baino gehiagok egin digun galdera da, eta geuk ere ezin erantzun garbirik eman. ATBko teknikariak egunero dabilta lanean telebista ahalik eta azkarren jartzeko, baina lana luzea da eta gutxienez pare bat aste itxaron beharko da oraindik. Beraz, pazientzia!

■ **MENOPAUSIARI BURUZKO TAILERRA**

Udaletxeko Emakume Sailak Menopausiari buruzko tailerra antolatu du urtarrilaren 21etik martxoaren 11ra arte astearteko arratsaldeko 4.30etatik 6.30ak arte. Tailerra Pepa Bojó psikologoak emango du eta dohainik da. Izena ematea Udaletxean. Tel. 79 41 39.

■ **BESAIDEREN IRTEERA**

Besaidek Ituren-Mendaur-Arantza ibilbidea antolatu du urtarrilaren 26rako eta bazkaria sagardotegi batean egingo da. Irteera goizeko 7etan Garibaitik izango da. Izenematea urtarrilaren 21,22 eta 23an 7.30etatik 8.30etara Besaiden.

■ **ANTIKONZEPZIO INFORMAZIO KANPAINA**

Arrasateko Udaleko Informazio eta Orientazio Sexualeko bulegoak antikonzeptzio informazio kanpaina jarri du martxan eta otsailaren 20ra arte iraungo du. Informazio gunea Garibai etxea izango da eta astelehenean 6etatik 8etara eta ostegunetan 3.30etatik 5.30etara jaso ahal izango da informazioa. Tel. 79 80 10.

■ **IKASTAROAK**

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak lau ikastaro antolatu ditu: Saloi Dantzak astelehenean goizetan, 10etan; hari tailerra ostegunetan 6.30etan; erlajazio masaia ostiraletan goizeko 10etan eta enkuadernazioa asteartean 5etan. Izenematea

zabalik dago eta Santa Teresako egoitzan egin daiteke. Tel. 79 04 59.

■ **DANTZA KARIBIARRAK**

Udaleko Gazteria Sailak dantza karibiarren ikastaroa antolatu du. Ikastaroa otsailaren 3an hasi eta martxoaren 9an amaituko da. Astelehen eta asteazkenetan burutuko da eta bi maila egongo dira: hastapen maila 7etatik 8.30etara eta hobekuntza maila 8.30etatik 10etara. Matrikula 4.000koa da, ikasle eta langabetuentzat 2.500ekoa. Izenematea Gazte Bulegoan egin behar da. Tel. 77 00 65.

■ **ARGAZKI ERAKUSKETA**

Harresi Aretoan Santamasetako Argazki Lehiaketako lanak daude ikusgai igandera arte. Ordutegia: 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

■ **LIBURUTEGIKO ORDUTEGIA**

Urtarrilaren 13tik liburutegiak ordutegi berria dauka. Astelehene-tik ostiralera goizeko 10etatik 1etara eta 4etatik 8.30etara. Bideoteka zerbitzuaren ordutegia astelehen, asteazken eta ostiraletan arratsaldeko 6etatik 8etara da.



■ **XAGU TRANPA ANTZERKIA HIRU EGUNETAN**

Txalo Produkzioak-en eskutik Agatha Christieren Xagu Tranpa ikusgai izango da ostiraletan 10.30etan euskaraz, larunbatean 10.30etan erderaz eta igandean 8etan. Prezioa: 1.000 pta, Gazte Txartelarekin 800.

Urtarrilak, 17,18,19
Amaia antzokia.
Prezioa: 1.000/800 pta.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 17**
• Egunez eta gauzez: Irizar. San Andres.
- Larunbata 18**
• Egunez eta gauzez: Amezuza. Santamaina.
- Igandea 19**
• Egunez eta gauzez: Ruiz. Maala.
- Astelehena 20**
• Egunez eta gauzez: Morales. San Andres.
- Asteartea 21**
• Egunez eta gauzez: Azkoaga. Ferrerías.
- Asteazkena 22**
• Egunez eta gauzez: Español. Iturriotz.
- Osteguna 23**
• Egunez eta gauzez: Corcuera. Musakola.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
Iguatorialdea . . . 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) . . . 79 39 00
(emakumeak) . . . 79 44 11
Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
Bergara . . . 76 55 76
- DYA**
Antzuola . . . 76 62 91
- Anbulatorioak**
Arrasate (Larrialdia) . . . 79 13 57
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
• Espezialitateak . . . 77 05 78
. . . 77 12 64
Oñati . . . 78 08 52
Eskoriatza . . . 79 98 58
Aretxabaleta . . . 79 74 58
Aramaio . . . (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udalzaingoa**
Oñati . . . 78 04 11
Bergara . . . 76 14 69
Arrasate . . . 79 14 39
Aretxabaleta . . . 79 10 52
Eskoriatza . . . 088
- Ertzaintza**
Arrasate . . . 79 71 99
- Suhiltzaileak**
Udal taldea . . . 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua . . . 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . 088
- Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) . . . 79 09 00
Elektrizitatea (iberduero) . . . 12 01 62
Gasa . . . 900 40 05 23
. . . 79 78 44
. . . 79 76 78
- Garraioak**
Taxiak . . . 79 12 22
PESA . . . 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
Iturbide Egoitza . . . 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
KIUB-OMIC . . . 79 51 55
- Montterongo liburutegia**
Montteron . . . 77 01 05
- Irratia**
Arrasate Irratia . . . 79 58 77

GERTU SENTITZEN ZAITUGU, RAFA

Abenduko bisitetan Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian zehar sakabanatuta gauden Arrasateko euskal preso politikoak lokutorioetara hurbildu eta jasotako lehen berriak zur eta lur utzi gintuen: Rafa Atxa, astero-astero gure edozein argazkiri tinko eusten zion gizona, bihotzkoak jota hil egin da.

Kantuen harrapatu zintuen Heriok eta gau izartsuetan zeruan piztu berri duzun izar disdiratsu horretatik ziega guztietara bidaliko dizugu zure doinu alaitzua.

Rafa, herritar arrunta, euskalduna eta abertzale jatorra. Zure semearen eskutik ezagutu zenuen Euskal Herriko beste alde bat, beste egoera bat, beste errealitate bat eta beste jarrera bat. Ezagutu eta baita zeure gorputzean sentitu ere. Geroztik, lagun, konpromezuari eutsi egin diozu.

Gure arteko gehienek ez zaitugu ezagutzen, baina guztiok izan dugu zure berri eta beti jakin dugu zu non aurkitu. Eta orain ere guretzat ez da ezer aldatu, badakigu, ziur gaude enkarteladei ez diezula hutsik egingo. Astero-astero hurbilduko zara eta edozein kartel altxatuko duzu tinko.

Ez gara luzatuko gehiegi, Rafa. Batzuek inoiz ez dute ulertuko, ezagutu gabe

maite daitekeela pertsona bat. Hori bai, horretarako ematen ere jakin egin behar da eta guk askotan sentitu dugu zure berotasuna. Beste lagun asko bezala gurekin zaude, Rafa, eta gurekin egongo zara orain eta beti. Horren aurka heriotzak ezin du deus egin.

Besarkada bero bana Feli, Xabier eta Nerea eta eutsi goiari.

Arrasateko euskal preso politikoak

AHTaren KONTRAKO MANIFESTAZIOA

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkako Asanbladak manifestazio batera deitzen du urtarilak 18 larunbatean Donostian, arratsaldeko 6etan Bulebarrean. Mobilizazio honen helburua da Eibar-Gasteiz autopista edo AHT bezalako makro-proiektu desarroilisten inposaketaren aurkako iritzia kaleratzea eta horren geldieratzea eskatzea, naturari begira errespetuan eta gizarte aldetik justizian oinarrituriko etorkizunaren alde.

AHT, Eibar-Gasteiz autopista eta beste azpiegitura handien inguruko azkenaldiko polemika ikusirik, salatu egiten dugu Euskal Gobernuaren eta Nafarroakoaren jokaera tamalgarria, gainerako administrazioena bezalaxe, Euskal Herrian

kapitalismo basatienari dagokion eredu desarroilistarekin bateratzen den eta lurra dominatzeko jarrera bortitza nabarmentzen duten proiektuak inposatzen ari zaizkigulako. Gogoratzen dugu azken urteotan herriari informazioa ukatuz eta ilunkeriak beterik egin dutela AHTren proiektua, inolako gizarte eztabaidarik gabe, edo manipulazio nardargarria erabiliz Eibar-Gasteiz autopistaren inguruan IGP delakoetan. AHTren aurkako Asanblada, horri aurre egiteko sortu da, eta hiru urte daramatzagu ekiten, informatzen, salatzen eta mobilizatzen. Alabaina, gaur egun Euskal Gobernu berean setaturik dago eta egiten ari den presio politikoek erakusten dute AHT kosta ahala kosta inposatzeko borondatea duela, eta "Y" aren obrak nolahi ere 1999an hasi, horrek suposatzen dituen zarrastelkeria ekonomikoa eta kalte ekologiko izugarriak nahiz ondorio sozial larriak kontuan hartu gabe.

Beraz, proiektu txikitzaile hauek, ekiditen ez badi-tugu, parte garen lurraren kontra eta orohar euskal gizartearen aurka suposatuko duen eraso bortitza geldiarazteko gure borondatea aldarrikatuko dugun mobilizazio honetan parte hartzera deitzen zaitugu. Autobusa antolatuko da.

Leintz Bailarako AHTren Aurkako Asanblada

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

M
Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 79 08 07

Memesa
79 42 22

Gogoratzen duzu ikurriñaren jasoaldi eguna?




Juan Izarzelai
(70 urte)
Jubilatua

Momentu honetan ez dut bereziki gogoratzen. Lehen egun seinalatuetan jartzen genuen, baina orain jendea nagitu egin da eta ez dugu jartzen.



Jose Luis Atxa
(59 urte)
Langabezia

Garrantzitsua eta hunkigarria izan zen. Seberon jai handia egin zen eta ni Frantziskotarren leiho batetik begira egon nintzen. Leintzeko lehenakaria nintzen orduan eta bertan ere jarri nuen.



Juan Jose Berezibar
(65 urte)
Jubilatua

Momentuan bertan ez nintzen plazan egon. Ikurriña behar genuela, behar genuela eta jaleo handia egon zen hemen. Lehen ipintzen genuen baina orain ez.




Elisabet Mendizabal
(67 urte)
Jubilatua

Oso egun polita izan zen, herriko plazan, oso hunkigarria. Herriko Plazan egon nintzen eta balkoian ikurriña jarri zutenean oso gauza polita izan zen. Oraindik ere Aberri Egunetan eta betik jartzen dut.



Begoña Azanza
(64 urte)
Jubilatua

Oso polita, egun ederra. Plazan nengoen, oso hunkituta. Jai handiren bat dagoenean ere, armairutik atera eta jartzen dut balkoian.



Daniel Izquierdo
(65 urte)
Jubilatua

Egia esan ez dut gogoratzen, eta hori bertan 35 urte daramatzadala. Zerbait bai, baina zehaztasunez esateko ez. Ez dut ezer jartzen... nik bakea nahi dut mundu guztiarentzat.



Trini Ruiz de Alegria
(73 urte)
Jubilatua

Plazan egon nintzen eta jendez beteta zegoen. Dena zen gora! jende gehiena pozik, beste batzuk haserre. Hura egun handia izan zen, ondo akordatzen naiz bai.



Mari Tere Altuna
(62 urte)
Jubilatua

Oso ondo gogoratzen dut. Oso emozionantea izan zen, orduko idealak ere handiak ziren eta. Lehen jartzen genuen ikurriña, baina orain ez.

KONTSULTA BERRIA!

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI
REUMATOLOGIA

LAGUN ARO

Erdiko kale, 22-1. • Tel.: 79 72 16 • ARRASATE



Erakusketa:
Araba Ibilbidea, 36
Tel.: 79 07 62 / 71 63 95
909-48 36 18
ARETXABALETA

OLTZA
Dekorazioa Egurrean
EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak • Eta abar
MATERIALEN
SALMENTA

ZABALDU BERRIA!

USTEAK USTE

Has gaitezen lanean!

Txikizioak herrian: telefono kabinak hautsita, banke-
txeak erdi-erreta, hainbat kristal puska-
tuta, epaitegia, kutxazainak. Txikizioa
Josu Arkauzen osasun egoeran: hilabetetik
gorako gose-greba eta astebete inguruko
egarri greba; hori gutxi balitz, guardia zibilen esku. Txikizioa bere
familian: emaztea, semeak, anai-arrebak... eta lagunak,
ezjakintasuna medio bihotza dardarka dutela. Txikizioa,
azkenik, oraindik demokrazia dontsua-
rengan sinesmen apur bat zutenentzat, legez kanpo eta gainera
lotsagabekeriaz jokatzeko egunero mahai gainean jartzen zaigun menua da eta.

Garrantzitsua, larria, eta tristea deritzot deskribatuta-koari, baina uste dut horretan geratzea adarretatik ibiltzea litzatekeela, sakondu beharra dago. Argi eta garbi: aurrekoak sustraian dagoen arazoaren ondorio latzak dira. Arazoari, konpontzeko gogoz eta borondatez eusten ez bazaio, nekez bukatuko da sufrimendu dinamika hori. Eta horretan denok jar genezake zerbait.

Beñardo Kortabarria



Arrazakeriaren aurkako gazte astea

Jabi Luengo

Arrasateko hainbat gazte elkartek (Orkatz Skaut Taldeak, Musakolako eta San Andreseko Gazte Txokoak, Gazte Asanbladak, San Frantziskoko Gazte Taldeak, AEDko Gazteak, Askagintzak eta Talde Antimilitaristak) osatutako Gazteria 3. txostenaren jarraipen bat emateko sortzen da aste hau antolatzeko nahia. Burutu zen lehenengo jarduera arrazakeriari buruzko gazte elkarleen topaketa izan zen (SOS Arrazakeriaren eskutik) oso abiapuntu baliagarria suertatuz.

Aste honekin lortu nahi ditugun helburuak hauexek dira:

- Euskal Herrian eta Arrasaten bizi diren beste kultura batzuren errealitatea, eta horrek sortzen dituen ondorioak direla eta, informatzea, sentibilizatzea eta hausnarketa

bultzatzea.

Arrazakeriaren arazoa, gehienetan beste kulturen, bizimoduen edo izaeren ezagupen eskasaren ondorio bat besterik ez dela kontuan izan behar dugu. Guk dugun baloreen eskalak ez du zertan bat egin behar beste kultura batek garrantzitsutzat jotzen dituen baloreekin. Eta ez da hobe ez bata eta ez bestea. Horregatik informazioa eta munduaren mugak gure sudurra-
ren puntaren ingurutik zabaltea da gure lehen helburua.

“
**Arrazakeria
gehienetan beste
kulturen ezagupen
eskasaren ondorioa
besterik ez da**
”

• Eremu urriko kultura horien aurrean sortzen diren legedia eta jarrera arrazistak salatzea.

Adibide bat jar dezagun: “Atzerritasun legeak” (edo “Atzerrikeri legea beharko luke”?) Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean eta beste nazioarteko tratatuaren aldarrikatzen diren mugitze-ko askatasuna, lanerako, osasunerako laguntza, umeen heziketarako eta hainbat esku-
bide hausten du.

• Eremu urriko kultura horiek egin dezaketen ekarpenak baloratzea eta positi-
batzea.

Asteko lemak ondo azaltzen du ideia hau: “Zeinek esaten dizu ez zarela arrazista? Baduzu zer ikusi eta zer ikasi. Animatu eta parte har-
tu!”

Jabi Luengo antolakuntzaren partaidea da

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea**

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETIA

Garantizaturiko interesa

%

%
25eko
atxikipenik gabe

Abantaila

fiskalak



Aurrezpen Segurua

Interes garantizatua eskaintzen duen aurrezpen formula, %25eko atxikipenik gabe eta abantaila fiskalekin.

Aurrezpen Seguruaren 4 modalitateen artean zure beharrei ondoen egokitzen zaiena aukera dezakezu.


Informazio gehiago nahi izanez gero, dei ezazu 901-333 444 zenbakira.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun zuzena.

GIDAekin badakizu nondik ekin!



- Gida 97 ez bazaizu etxera heldu...
- Datoren bat txarto agertzen bada...
- Hurrengo urtean agertu nahi baduzu...

Deitu 77 08 15 telefono zenbakira.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

astea bi hitzetan

■ **Valladolidera elkartasuna eraman**

Valladolideko Tordesillas herrian izan ziren joan den astebukaeran Arrasateko Motozale Elkarteko 20 kide. Valladolidera motorrez joan ziren, eta helburua Zaireko errefuxiatuendako janaria eramatea izan zen. Motozale elkartekoak motorrez joan baziren ere, furgoneta batean elikagaiak eta botikak eraman zituzten. Europa osoko jendea bildu zen Tordesillasen, eta guztien artean bildutako janaria Zairea bidaliko da orain.

■ **Euskadiko Kutzaren irabaziak gorantz**

Iazko urtearen balantzea egin du aste honetan Euskadiko Kutzak. Irabaziak

handitzea lortu zutela eta, finantza erakundearen arabera iazko urtea ona izan zen. Aurreko urtearekin konparatuz irabaziak %16 hasi ziren iaz, eta guztira 14.019 milioiko mozkinak jaso zituzten. Adin jakin bateko bezeroei zuzendutako produktuek ere gorakada izan zuten joan den urtean.

■ **AKEIko langile ohien auzia aurrera**

Oraindik konpondu barik jarraitzen du AKEIko langile ohien auziak. Abenduaren bukaeran J.M. Loitirekin, Mankomunitateko lehendakariarekin, bilera izan zuten langileek euren egoeraren berri emateko. Langileen arrazonamenduak entzun ondoren, arazoa

aztertzeotan geratu ei zen Mankomunitateko lehendakaria. Astelehenean, berriz, bilera garrantzitsua izan zen Donostiako Lan Ordezkariekin. Azken honek langileen kontrako erabakia eman zuen hasiera batean, baina ELAkoek aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, AKEIkoen arazoa berezia dela onartu zuen lan ordezkariek astelehenean. ELAkoek azaldu ziotenez, Dragados-ek eta Mankomunitateak beste iharduera batzuekin jarraitzen dute, eta gainera, AKEIn zaborrak tratatzen jarraituko da.

Orain, berriz, Gasteizeko Lan Departamentuak eta Lan Ordezkariek eman beharko dute auziaren inguruko azken erabakia.



BI ERRUMANIAR ATXILOTU

Igandean bi errumaniar atxilotu zituen Ertzantzak Arrasaten, ustez umeen karrotxo bat lapurtu zutelako. Atxilotu batek galerazita dauka Europar Elkarteko herrietara sartzea. Orain dela hilabete heldu zen errumaniarrez osatutako talde bat herrira, eta ordutik Zaldispén daude bizi izaten.



GERRA IRAUNARAZLEAK

Josu Arkauz Arana horrelako modu lotsagarrian Pariseko agintariek espainiarren esku utzi duten orduan edo Jean Louis Maitiari beste lau hilabete kartzela iduriz aitzakia izpirik gabe gehitzen dizkiotenean, urte berri honi buruz egin diren bake agiantzak ia porrotean direla ikusten da. Pena baina ere haserrea ematen digute.



(...)

Inoiz baino gehiago bakea Palestinan Israeleko gobernuaren esku da, Irlandan Londresekoenaren esku eta Euskal Herrian Madril eta Parisekoenatan. Jestu bat egin behar dute, itsutuki araudiak aplikatu orde. Ihardukitzaile amorratuena, ez dut dudatzen, bakean konfiantza hartuko duen herriak jabalduko du baina ez gaurko baldintzetan”.

LUZIEN ETXEHARRETA

Euskaldunon Egunkaria
1997-1-16

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

MUXIBAR

Taberna hau urtarrilaren 20tik otsailaren 20ra ITXITA egongo da erreformagatik. Laster izango gara zuekin!

Tel. 79 11 25 ARRASATE

J.R. Arkauz: "Lur jota geratu nintzen anaia zein egoeratan zegoen ikustean"

Josu Arkauzen azken espetxe egunak gertutik jarraitzeko, joan den ostiralean Parisera abiatu ziren HBko ordezkari bat, Arrasateko alkatea, HBko komunikazio arduraduna, Josuren emaztea eta anaia, Jose Ramon Arkauz.

- Zein helbururekin joan zineten Parisera?


- Alde batetik azken espetxe zigorrak gertutik jarraitu nahi genituen, eta bestetik, zein egoera larrian zegoen ikusita Josurekin egon nahi izan genuen. Presioa egin asmoz, Parisen egon garen egunetan gestioak egiten ibili gara hainbat talde eta lagunekin eta komunikabideetara ere jo dugu.

- Anaia bisitatzeko aukera izan zenuen. Zelan zegoen?

- Larunbatean, lehenengo aldiz bisitatu nuenean, oso txarto pasatu nuen. Egoera hura jasango nuela uste nuen baina anaia zein egoeratan zegoen ikustean lur jota geratu nintzen. Astelehenean azkenengo aldiz ikusi nuen, eta guztiz apurtuta topatu nuen. Begiak zabaltzeko indarrik ere ez zuten, eta berak ere gehiago ezin zuela esaten zuten. Anaiaren egoera oso arriskutsua da, bere bizia arriskuan ikusten dut. Madrillgo forensari galdetu genion ea zer moduz zegoen, eta makilakada batzuk eman zizkiotela baina ondo zegoela erantzun zigun.

- Azken uneak zelan bizi izan zenituzten?

- Larritasun handiarekin.



J. R. Arkauz, Josuren anaia.

Astelehenerako anaia oso txarto zegoen, eta ordu horiek oso

gogorak egin zitzaizkigun. Hasi batean espetxe zuzendariak esan zigun anaia aske uzteko agindua zuela, baina ondoren auto batzuk etorri eta eramanez zuten. Ez dakit zelan eramango zuten, mugitu ere ezin zen egin eta. Une honetan (asteazkenean) ez dakigu non dagoen ere. Abokatuak esan digu Madrilen eta Goardia Zibilaren koartel batean dagoela, baina ez dakigu ezer gehiagorik. Ez dakit zer sartuko zioten baina zozter bai, anaiak ezin zuten gehiago agoantatu eta.

- Familiak nola jasan du guzti hau?

- Familia jota dago, oso gogorra da gertatzen ari dena. Ama eta aita eta familia guztia oso txarto daude.

- Zein inpresio atera duzu guzti honetatik?

- Joku zikin bat dela. Josuk aske egon beharko luke edo bestela, estatu espainiarrak estradizioa eskatu behar zuen. Gainera, komunikabide gehienek epaiketa baino lehenago epaitu dute hainbat gauza leporatuz.

Manifestazioak Arkauzen egoera salatzen

Azken egunetan manifestazioak egin dira Arrasaten, Josu Arkauz polizia espainiarraren esku utzi izana salatzen. Asteartean eta asteazkenean, gainera, Arrasateko eta inguruko herrietako hainbat ikasleek greba egin zuten. Eguerdian manifestazioa egin zuten ikasleek, eta asteartekoa bereziki oso jendetsua izan zen. Gaurko, ostiral arra-

tsaldeko 7.30etarako, beste manifestazio bat dago deituta. Josu Arkauzek urtarrilaren 13an bete zuten Frantziak ezarritako espetxe zigorra, eta estradizio eskaerarik ez bazegoen ere Frantziak polizia espainiarraren esku utzi zuten arrasatearra. Abenduan gose greba eta azken egunetan egarri greba hasi zuten Arkauzek.



Txikizio ugari eta balorazio desberdinak larunbateko kale istiluen ondorioz

Aurpegia estalita zeraman gazte talde batek hainbat txikizio eragin zuen zapatu gauean Arrasaten. Egin egunkarira egindako dei baten bidez erasotzaileek jakinarazi zuten, sabotaje ekintzak Josu Arkauzen estradizioaren eta Goio Etxabe presoaren egiten ari den gose grebaren inguruan egin zirela.

Gutxi gora behera 30 gazte osatutako taldeak honako tokiei eman zien su molotov koktelaren bidez: La Caixaren sukurtsalari, BBV eta Banco Guipuzcoanoren kutxazainei eta Garibaiko bi telefono kabinari. Gainera, Erdialdeko etxebizitzak telefono linearik barik geratu ziren. Ondoren, epaitegi barrura erregaia bota zuten eta tiragomekin Elkartetxea erasotu zuten. EAren egoitzan zeuden esanetan minutu bateko kontua izan zen, baina denbora tarte horretan kanpoko kristalak puskatu zituzten. Abenduaren 20an eta joan den zapatuan egin ziren erasoen ondorioz, 500.000 pezetako galerak zenbatu dituzte Elkartetxean.


Ertzaintza atera eta gomazko pilota batzuk bota arren, erasotzaileen eta Ertzantzaren artean ez zen istilu berezirik izan.

HBren ETA EBaren IRITZIAK

Asteleheneko gobernu bileran zapatuko erasoaren balorazioa egin zuten HBk eta EBak. Josu Arkauzen egoeraren inguruan kokatu zituen Herri Batasunak zapatuko txikizioak. HBren ustez, kontua ez da zapatuko istiluekin ados egon ala ez. Ino Galparsorok esan zuenez, Euskal Herriak



Garibaiko bi telefono kabinak guztiz hondatuta geratu ziren, eta Erdialdea telefono linea barik geratu zen.



Euzko Alkartasunaren egoitza erasotu zuten 30 erasotzaileek.

arazo politikoa bizi du eta arazo horri irtenbide politikoa eman behar zaio. Bestalde, azaroaren 29ko udal plenoan HBren, EBaren, EAren eta EAJren aldeko botoekin onartutako mozioa gogoratu zuten. Mozio hartan Josu Arkauzen kanporaketa salatzen zen besteak beste.

Ezker Batuko zinegotzia Josu Arkauz arrasatearra poli-

zia espainiarraren esku uztearen aurka azaldu eta Euskal Herriak arazo politikoa bizi duela esan zuen, baina EBaren ustez arrazoi horiek ez dituzte zapatu gaueko ekintzak justifikatzen. Horregatik, larunbateko erasoak salatu eta aldarrikapen politikoak bihurtzea barik egitearen alde azaldu zen Joseba Ugalde, EBko zinegotzia.

EAren GALDERAK

“Paperak galdu dira” izenburupean, zapatuko ekintzak salatzeke idatzia kaleratu du Arrasateko Euzko Alkartasunak.

HBko botoemaileei zuzenduta dagoen oharrean esaten da, horrelako ekintzekin herriaren batasuna apurtu eta enfrontamendu zibila bilatzen dela. Idatzian hainbat galdera zuzentzen zaie alkateari, Arrasateko HBri, Senideak alkateari eta HBren 3.000 botoemaileei. Galderak honakoak dira: bandaloen ekintzak babesteko asmoa duzue?, isiltasunarekin erantzuten jarraituko duzue?, gerra zibil hau laguntzen segiko duzue?, zuen aldarrikapenetan gure laguntza eskatzen jarraituko duzue?, zein aurpegirekin?. Alkateari, berriaz, guztion alkatea dela uste ote duen galdetzen diote.

Herriko 124 familik jaso dute pobrezia laguntza

Joan den urtean Arrasateko 124 familik jaso zuten pobrezia laguntza. Programa honen barruan Diputazioaren eta Udalaren laguntzak daude, eta beharrenda daudenek bata edo bestea edo biak jasotzeko aukera izaten dute. Udalak batez ere etxebitzaren alokairua edo ura eta argia ordaintzeko dirua ematen du, eta Diputazioak jatekoa eroszeko dirulaguntza. Batez ere langabeziaren eraginez eskatzen da pobrezia laguntza, baina emakume gehienek, berriz, banatuak daudelako edo alargunak edo ezkongabeak direlako jasotzen dute. 95eko datuekin konparatuz gero, iaz 59 famili gutxiagok jaso zuten pobrezia laguntza



Hirugarren adineko hainbat lagunek etxez-etxeko laguntza jasotzen du.

eta Udalak guztira 26 milioi eta erdi pezeta gastatu zuten.

Pobrezia planaren onuradunak gutxiago izan arren, etxez-etxeko laguntza jasotzen dutenen kopuruak gora egin zuten iaz. Guztira 135 arrasa-

tearrek jaso zuten etxez-etxeko laguntza, orain bi urte baino 35 gehiagok. Hirugarren adinekoei edo elbarrituei zuzenduta dago laguntza hau, eta guzti horiei langile bat bidaltzen zaie etxera.

“Zaborren problematika aztertzen”

Zaborren problematika aztertzeko kanpaina hasi dute Udako Ingurugiro Eskolak eta Deba Garaiko Mankomunitateak. Kanpaina 6. mailako ikasleei zuzenduta dago, eta guztira 700 gaztek izango dute kanpainaren berri.

Zaborrek ingurugiroan sortaraz ditzaketen arazoek berri eman, zaborrak tratatzeko dauden metodoak azaldu eta birziklapenaren berri ematea dira kanpainaren helburuak. Horretarako, lehendabizi egonaldi bat egingo dute Ingurugiro Eskolan. Ondoren, ikasgeletan landuko dute gaia eta muralak egin beharko dituzte. Mural guztiek lehiaketa batean parte hartuko dute.



LEIHO ISOLATZAILEAK




Bezeroarekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

Irtenbide aproposena!








(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



MOTORREAN TORDESILLAS-era



Arrasatear asko joan ziren astebukae-
ran Valladolideko Tordesillas herrira.
Arrasateko Motozale Elkarteko kide izan-
ik motorrean heldu ziren Tordesillas-
era, baina furgoneta batean Zaireko erre-

fuxiatuendako janaria eramán zuten.
Europa osotik joandako 16.000 moto-
zale elkartu ziren bertan helburu berdi-
narekin. Ikusten den bezala motorra arrazoi
desberdinekin bultzatuta har daiteke.

IZENA

Imanol Expósito San Pedro

Imanol Expósito da Besaide
Mendizale Elkarteko
lehendakari berria. Besai-
dek atzo egin zuen batzar
orokorrean jakinarazi zen
erabakia eta Imanolek orain
arte Mikel Aranek bete
duen kargua hartu du.
Imanolek 44 urte ditu,
arrasatearra da eta Arrasa-
ten bertan bizi da. Lan egin
berri Bergarako *Trokeleria*
Amberton egiten du.
Arrasatearra Besaideko
bazkide da 18 urte zituene-
tik.

DATA

1977ko urtarrilak 19

Ikurriñaren legezapena.
Beste herri askotan bezala,
Udaletxeko balkoian jarriko
zen ofizialki. Plaza jendez
gainezka zegoela Inaxio
Urionak, Gregorio Etxabek
eta Imanol Irazolak jaso
zuten ikurrin handi bat
jendearen txalo artean.
Legearen aginduz, ikurriñare-
kin batera herriko bandera
eta Espainiakoa jaso beharra
ere bazegoen, lehenengoa
Gabriel Mendizabalek jarri
zuen eta bigarrena Jose
Antonio Altunak, orduko
alkateak.
Unea hunkigarria izan zen,
baina istripuxo bat ere
gertatu zen, balkoiko bola
handi bat erori eta emakume
bat buruan eta polizia bat
bizkarrean kolpatu zuenean.

AUTOAREN IRABAZLEA AGERTU BARIK

Urtarrilaren 7an atera zen
Ibai Artek zozketatutako
kotxearekin saritutako
zenbakia. Argazkian ikusi
daitekeen moduan, notario-
ak eta Rosarito Ceciagak
atera zuten zenbakia:
23.389a. Antza denez
Lasagabaster dendan
banatu zen boletoa baina
oraindik ez da agertu



jabea, beraz, adi bertan
zerbait erosi duzenok.
Kotxea jasotzeko epea
otsailaren 7an amaitzen da

eta ordurako irabazlerik
agertuko ez balitz, erreser-
bako beste bi zenbaki
daude: 16.282a eta 3.431a.

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

beatriz

oinetakoak
eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tel.: 79 14 33
ARRASATE

ITSASKI
ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tel.: 79 98 94



1996ko Abendua 1. zka.

Gure ustez

Haxe da dagoena



Gure bezero eta hornitzaileei errendakoa hitza zorrotz betetzea eta, oro har, merkataritza alorreko gure konpromisuzko "ahozkoak" zein idatzizkoak betetzea, laguntzarria eta onuzagarria da gure enpresak garatu eta irabazteko.

Hitzarmenak sinatu arren, adiotan ez da hauek betetzeko asirik izaten. "Letra txiki" gehiegi dago hitzarmenentzat. Zertarako? beraren laguntzeko? Letra garrantzitsua da, baina are garrantzitsuagoa letaren apurria.

Edozein inbentario motatan parte hartutako guztion gizarte eta giza alorreko portatzerak ikusten baditugu, hutsen idatzi gabeko konpromisuek agera (bitartez pribatuz, gizarte mailako konpromisuek, horretarako kohorentzia eta abar). Hitz bakiak ezusteko, betetsakiko

hitzarmenetan gure uste moral edo etikoa errespetatu eta aurrera eramaten baditugu eta agindutakoa betetzen badugu, enpresak beren helburuak bete ditzaten laguntzen dugu.

Luzera, gure kasuan behinik behin, guretzat eta osanditako edo agindutakoa ez betetzeak ondorio batera garrantza, alegia, gure bezeroen onenet "bere konpromisuenak betetzen dituzte", bai beren baitza pribatuz hartutakoak eta baita beren merkataritza alorrekoak ere.

Ela... bestalde, bakoitzak "huts egindakoak" zerrendak begiratzen baditu, hauek beren konpromisuek publikoak eta pribatuak betetzen ez dituztela ikusiko du.

ONDORIOA argia da gure hitzari buruzko gortetzea eta konpromisuzkoak betetzea erantzarria da.

- 1. Produktzio berritzalea
- 2. Munduari itzulita JMArekin
- 3. Ferroforma I ...




- 4. ... eta Ferroforma II
- 5. Jendea gogokoak dugu
- 6. Txangoa dugu
- 7. JMA Proiektuek Orain, Mexiko eta Italia

Jose Antonio Altuna
Kontseilari Ordokaria

Arrasateko JMA enpresak aldizkaritxo bat kaleratu du. Abenduan atera zuten lehenengo zenbakia eta "JMA News" izenburua jarri diote. Aldizkariak 8

JMA NEWS ALDIZKARIA orrialde ditu eta

euskaraz idatzita dago, baina erderaz eta ingelesez ere atera dute. Lehenengo zenbakian JMAk Argentinan duen ordezkariak, kalitate sistemaren garrantziari buruzko argibideak, Ferroforma feriari buruzko gorabeherak, Mikel Otxoa JMAko langileari egindako galdeketa eta beste kontu batzuk irakur daitezke.



TXERRIA NAHI EZ... ETA DIRUA JASO

Azke-
nean
agertu zen
Santamasetako txerriaren zozketaren irabazlea.
Buztanmotzen,

350 kiloko txerriaren jabea agertu zen baina Flora Martinezi ez ei zion ilusio gehirik egin txerriaren opariak eta nahiago izan du dirua jasotzea. Florak ambulategian egiten du lan eta lagun batek saldu zion errifa. Gutxien espero zuena txerria tokatzea zen eta Florak, Bergarako bere etxean txerriarendako tokirik ez duenez, nahiago izan du dirua hartzea.



ARGAZKI EDERRENAK

Juan Karlos Trojola, Karmelo Uribarren eta Belen

Carenas izan dira aurtengo Santamasetako argazki lehiaketako irabazleak. Astelehenean banatu ziren sariak Harresi Aretoan eta Juan Karlosek 20.000 ptako diru saria eraman zuen argazki bilduma onenagatik. Karmelo Uribarrenek berriz, argazki onenaren saria jaso zuen, 15.000 pta. Belenek 10.000 pta. eraman zituen bigarren bildumarik onenagatik. Hirurak Arrasatekoak dira eta gainera ASA taldekoak. Zorionak!

ALMENeko IKASBIDAIAKO ZOZKETA

ALMEN ikastolako B.O.ko 2. mailakoek ikasbidairako errifak atera zituzten Santamasetan eta hauek izan dira zenbaki sarituak: 460, 296 eta 084. Saridunek ALMENera deitu beharko dute, 71 49 07 telefonora.

Lubia
Cinetakoak

Poltsak • Zapatak • Gerrikoak

Beherapenak!

Zatoz!

Mitarte, 14 Tfnoa: 79 16 00 ARETXABALETA • Biteri, 1 Tel.: 79 66 53 ARRASATE



Otalarako 31 zenbakian dago ARKOnen egoitza berria. Erailkinak hiru solairu ditu eta lehenengo biak ATB eta Arrasate Pressendako dira.

Arrasateko komunikabideen etxe berria

Hemendik aurrera egoitza berri batean egongo dira Arrasate Press eta Arrasate Telebista, Otalora kaleko 31 zenbakian. ARKOK horrenbeste urtetan itxaron duena errealitate bihurtu da egunotan eta errege magoek ekarritako oparia balitz moduan lokal berria estreinatu dute bi komunikabideek.

Egoitza berri baten beharra larria zela ulertzeko, 1990ean ATB ospital zaharrean kokatu zenean, probisionalki egin zuela esan behar da, 6 hilabeterako hain zuzen. Hilabeteak urte bihurtu dira eta gaur arte itxaron behar izan da egoitza txukun batera joan ahal izateko. Ospital zaharreko lokalak ez zituen lan egiteko gutxieneko baldintzak betetzen: berogailurik


ez zegoen eta umeltasuna handia zen. Horrek neguak gogortzen zituen eta ia ia, langile guztiek zekiten katarroa ezin izango zuten negu osoan gainetik kendu. Bestalde eraikinaren sare elektrikoa oso zaharra zen eta euria gogor egiten zenean argindarrak salto egiten zuen: zenbatetan joan den argia honelako erreportai bat ordenadorean idazten egon eta disko gogorrean oraindik gorde barik zegoela...! Zenbat jura-

mentu eta madarikazio ospital zaharrari! Xaguak ere alde batetik bestera lasai asko ibiltzen ziren, jende artean bizitzera ohituta... horrelako mila anekdota konta daiteke. Dena den, lokal zaharrak bazuen bere alde ona: kokapena. Arrasate erdi erdian zegoen, alde zaharrean, leku guztietatik gertu. Bestalde, kalistrokek bizitasuna ematen zioten eguneroko lanari eta horregatik, ospital zaharrak bazuen xarma

berezi bat. Hala ere, Ikerne Altubek, ARKOk gerenteak esaten duenez "beharrezkoa zen egoitza aldaketa bat. Sebero Altubeko lokalean ez zegoen lekurik ezertarako eta lan egiteko baldintzarik ere ez. Otolara kaleko egoitza berria askoz handiagoa da eta ondo kokatuta dago. Udari begira suerta daitekeen arazoa Sebero Altubetik egiten ziren San Juanetako zuzeneko emisioa izan daiteke. Lokal zaharretik kableak leihotik Seberora eramaten ziren eta kitto, baina Otolatik ezin da hori egin". Arazo horren aurrean, gerenteak esaten du udalari egin zaiola zuntz optikoa jartzeko eskakizuna ATB eta herriko gune estrategikoen artean zuzeneko konexioak egin ahal izateko.

AURREKONTUEN GORABEHERAK

18 milioi kostatu da Otolarako egoitza berria egokitzea baina gorabehera asko egon da aurrekontuetan. Juan Jose Uriartek, aurreko legealdiko euskara batzordeburuak gogoratzen duenez, 1991n kargu hori hartu zuenean egoera kaxkarran zegoen herriko bi komunikabideen egoitza. Lokal berri bat bilatzen hasi zitzaien. Altamira, Zerrajerako bulego zaharrak eta Ignazio Zuloaga kaleko lonja bat tanteatu ondoren, Otolara kaleko 31 zenbakiko etxea onena zela erabaki zen. Juan Jose Uriartek gogoratzen du "Otolarako 31 zenbakia ARKOr adjudikatu zitzaion eta orduan, ilusio handiz nire alde-tik, proiektua lantzen hasi ginen. Orduan gertatu zen Gari-bai kaleko INEM erre zutela eta INEM Otolara 31ra eraman zela probisionalki. Ondorioz, bertan behera geratu zen ARKOrren proiektua. Momentuz lokal berrira joaterik ez zegoen baina urte haietan beste gauza batzuk lortu genituen, ATBrako tresneria berria adibidez".




ATBko emisioa ez da hasiko lokal zaharretik berrira eramandako tresneria txukundu eta konekzioak egin arte.

**18 milioi
kosta da
gutziz erreta
zegoen
egoitza berria
egokitzea.**

**ARKOk
Udalari zuntz
optikoa
jartzeko
eskatu dio.**

**Bigarren
pisan
Arrasate
Irratiaren
gelak egin
dira.**



Zazpi urtetan pilatutako bideo zintak artxibatu beharra dago orain.

Urte batzuk pasatu ziren 1995eko irailaren 27an, Gudara Egunean, manifestazio batean molotov koktel batzuen ondorioz Otolara kaleko INEM probisional hura erretzen arte. Esan behar da, INEMeko sutea gertatu baino lehen, 1995eko maiatzean, plenoak 30 milioiko estimazioa egin zuela ARKOrren lokal berriaren obrak egiteko, baina handik gutxira, aurrekontuetan murrizketa handiak egon zirenez, ARKOrako diru kopurua 10 milioitan geratu zen. Irailean Otolaran

sutea gertatu zenean, diru kopuru horrek ez zuen gora egin nahiz eta orain lokala guztiz kixkalduta egon eta bihotzetik berritzen hasi behar zen.

Sutearen ondorioz Arrasateko INEMen bulegoak Eibarrera mugitu ziren eta orduan, berriz eta ofizialtasun gehiagorekin ekin zitzaion ARKOrren lokal berriaren proiektuari.

Juan Luis Arexolaleiba, gaur egungo euskara batzordeburua oso pozik dago behingoz ARKOk lokal duin bat



JABI LUENGO

ARKOko 15 langileak askoz hobeto konponduko dira 440 m²ko egoitza berrian. Argazkia plato berrian dago egina.

lortu duelako eta hori asko pozteko arrazoi bat dela esaten du: "Lokal berriak ARKO jadanik gorpuztuta dagoela esan nahi du. Positiboki baloratu



ARKOko erredakzio bateratua egoitzaren bigarren pisuan dago.

behar da ere Udaletxeko teknikoen eta ATBkoen artean egon den komunikazio ona lokal berriaren diseinua egiterako orduan" esaten du Are-

xolaleibak. Ion Aldanondo, ATBko arduraduna ere ados dago euskara batzordeburuarekin eta gehitzen du "espe-rientzia gutxiko jendea aritu

440 m²ko egoitza bi solairutan

Otalora kaleko lokal berriak bi solairu ditu, bakoitza 220 metro karratukoa. Telebista beheko solairuan dago. Platoa azalera osoaren herena da, handia beraz. Goi-ko solairuan berriz, Arrasate Press, publikizitatea eta gerentzia daude, eta irratia.

Lokal zaharrean ez bezala, berrian gauza bakoitzarendako gela bat dago, hau da, era-biltzen ez diren dekoratuak ez dira platoan egongo orain; publikizitek euren bulego pro-pioa izango dute eta baita gerentziak ere; harrera gela bat ere badago eta baita aldagela bat. Telebistako bideo zintendako artxibo egoki bat antolatu da eta ia eraikin osoan aire egokitua dagoenez, bideo zintak egoera onean mantendu daitezten baldintzak betetzen dira.

Teknikoki berriz ez dago berritasunik. ATBko nahiz Arrasate Presseko tresneria beti-koa izango da. Telebistan berriz, altzari berriak egin dira monitore, soinu mahai eta mag-netoskopiaendako.

Bestalde gauza nabarmena da gabon ostetik ATBko emisiorik ez dagoela. Tresneria osoa txukundu eta konexioak egin arte ez da programazioa hasiko. ATBko arduraduna-ren hitzetan, "ezin da kalkulatu zenbat denbora eramango digun horrek baina behar bada, bi aste barru emititzen hasteko gertu egongo gara".

Egoitza berrian egin ezin izan dena berriz, platoaren insonorizazioa izan da. Asmoa bazegoen baina aurrekontu murrizketagatik bertan behera geratu da. Ion Aldanondok dioenez, "pena bat da, hemen errepide ondo ondoan gaude eta trafikoaren zarata izango dugu platoan".

gara lokal berriaren diseinua egiten eta banaketa antolatzen, lan handia eman digu baina orain esan daiteke Euskal Herriko herri komunikabide-en artean lokal onena eta txu-kunena Arrasaten dugula".

IRRATIA ARKOrekin BATERA

Otalora 31ko lokalak hiru pisu ditu eta lehenengo biak ATB eta Arrasate Pressenda-ko dira. Behean telebista dago eta goian, momentuz, Arrasate Press bakarrik. Hala ere, goi-ko pisuan Arrasate Irratiaren-dako gelak eta estudioa egin dira, laister hiru komunikabi-deak elkarrekin egon daitezten. Izan ere, Arexolaleibak esan duenez, "ez du zentzurik ARKO bezalako egitura gor-puztu bat egonik, Arrasate Irratiak bere aldetik bakarrik jarraitzeak. Hiru komunika-bideen egoera egokiena guz-tiak elkarrekin, gestio bakar baten pean egotea litzateke".

Hala ere, momentuz asmo eta proposamen bat baino ez da hori. "Irratia ARKOra tzearen proposamena aurtengo aurrekontuetan sartuta dago baina horiek onartu arte ezin da ezer aurreratu. Nire ustez, logikagatik, aho batez onartu beharko litzatekeen proiektu bat da. Nire aldetik zalantzak ditut irratia ARKOra tuko ez balitz efikazia aldetik mereziko ote lukeen irratiak bere kabuz jarraitzeak... Dena den, Arrasate Irratia ARKOren gestio-pean uzteak ez du esan nahi irra-tiaren lizentzia ARKOk hartuko lukeenik, Udalak jabe izaten jarraituko luke".

Amaitu dira beraz ARKO-ko langileendako neguko katarroak, udako platoko kalenturak eta xaguen bisitak. Sei urte itxaroten egon ondo-ren, behingoz traste guztiak jaso eta Otalora 31ko zenba-kira eraman dira. ■

Maidar Egües

Mondra Emakume taldeko golegilea

BAKARTXO LUENGO

“Etxeko partiduetan samurrago sartzen ditut golak”

— **Taldeko golegilea zara, zenbat gol sartu dituzu?**
— Gaur arte bost, Susanak bezala. Biak gara taldeko golegile.

— **Aurreko denboraldietan atera begira trebe ibili zara?**

— Bai lehen gol gehiago sartzen nituen maila bajua-goan geundelako. Denboraldiko 20 bat sartzen nituen.

— **Bost gol horietatik zein gogoratzen duzu bereziki?**

— Beharbada lehena, Sondikari sartutakoa. Sondika talde sendoa da, nire golari esker 1 eta 0 jarri ginen aurretik eta poztasun handia eman zidan.

— **Egin duzun kale handiena?**


— Aurten penalti bat huts egin dut. Bi jaurti ditut, batek sareetako bidea hartu zuen baina besteak ez. Normalean nik neuk jaurtitzen ditut penaltiak.

— **Emakume taldeak zein helburu du aurten?**

— Mailari eustea eta ahal bada erdialdetik gora. Gainera maila berrian asko ikasi behar dugu, teknika sakondu...

— **Zer dute Luengotarrek denak futbol jokariak izateko?**

— Ez dakit, gure etxean kirolzale izan gara beti eta futbolak garrantzi handia izan du. Hala ere beste kirol batzutan ere ibilitakoak gara.



FUTBOLA Bigarren buelta hastear




Preferente mailako Mondrak 34 punturekin eta 4. tokian bukatu du lehen itzulia. Jokatu-

tako 19 neurketetatik hamar irabazi ditu, lau berdindu eta bost galdu. Golei dagokienez Jesus Mari Barrutiabengoak zuzentzen duen taldeak 35 gol sartu ditu eta 20 jaso. Datu onak hirugarren maila helburu duen talde batentzat. Mondrak denboraldi hasiera irregularra egin arren, azken partiduetan itxura hobea erakutsi ondoren emaitza baikorrak lortu ditu. Horiei esker sailkapen nagusiko goialdean kokatu da taldea. Goialde horretan jarraitzeko jakina, Mondra taldeak ahal duen onena eman beharko du bigarren bueltan. Buelta horretako lehen partidua domekan arratsaldeko 4etan jokatu da Atxabalpen. Aurrean Hondarribia taldea egongo da.

Mondrako emakumeek berriz, Amaia taldea izango dute aurkari domekan eguerdiko 12etan Atxabalpen. Juanina Garaik zuzentzen duen taldea garaipena lortzeko asmoz zelairatuko da, Añorgaren kontra hiru puntu galdu zituen eta horiek lehenbailehen eskuratu behar dira.

ESKUBALOIA Zulotik irten behar



Eskubaloi taldea sailkapeneko azken tokian dago 12. ihardunaldia jokatu denean.

Urte berriak ez dio emaitza onik ekarri Ibon Alzelairen taldeari. Datorren zapatuan La Roca izango dute bisitari Iturripen. Arrasatearrek

derrigorrez irabazi behar dute bigarren mailara ez jeisteko. Galduz gero, hemendik aurrerako etxeko neurketa guztiak irabazi beharko lituzkete mailari eusteko. Zapatuko partidua arratsaldeko 6etan jokatu da Iturripen.

SASKIBALOA Hirugarren garaipenaren bila



Urbina Maltzagak ezin hobeto bukatu eta hasi du urtea. German

Mongereren mutilek jarraian bi garaipen lortu dituzte eta hirugarrena lortzeko asmoz Manresara joango dira asteburu honetan. Norgehiagoka zapatuan arratsaldeko 8.30etan jokatu da Manresako kiroldegian. Arrasateko taldeak jokari guztiak gertu izango ditu. Manresa sailkapeneko 6. tokian dago zortzi neurketa irabazi eta sei galduta.

RUGBYA Unibertsitarios aurkari



Patxi Gorosabelen mutilek Bilboko Unibertsitatea taldearen kontra erakutsi beharko dute

zer egiteko gauza diren zapatuan arratsaldeko 4etan Bilbon. Arrasatek lehen bueltan 7 eta 10 galdu zuen baina hori datu bat baino ez da. Bilboko taldea multzoko sorpresa handiena izan da aurten. Denboraldi hasieran inork gutxi espero zuen ezer talde honengandik hala ere maila eta joku ona erakutsiz sailkapeneko 3. tokian dago. Arrasatek beraz ez du erronka samurra izango zapatuan, baina irabazteko asmoz joango direla esan dute.

Arrasate txirrindulari profesionalen topaleku apirilaren 11n

Arrasate Txirrindulari Elkar-teak dagoeneko lortu du Euskal Herriko Itzuliko azken etapa Arrasatera ekartzea. Hori lortzeko beharrezko baldintza zortzi milioiko aurrekontua zen eta hilabete hauetan ekinaren ekinez lanean ibili ondoren, lortu dute babes ekonomikoa. Rafa Etxabek, antolatzailetariko batek aitortu digunez, dirua lortzea ez da lan makala izan, "Arrasate Txirrindulari Elkar-tean gabiltzanok beste toki batzutan egiten dugu lan eta proiektu horri eskaintzeko denbora falta izan da gure etsai handiena. Lan ordutik kanpo ate joka eta batzarrez batzar ibili behar izan dugu, baina azkenean lortu dugu hain arrakastatsua den froga herrira ekartzea. Horrek jakina, poztasun handia ematen du".

Arrasateko antolatzaileek babesle desberdinak lortu dituzte. Alde batetik Arrasateko Udala dago 3.300.000 pezetako dirulaguntzarekin;



Txirrindulari profesional onenak izango dira Itzulan.

bestetik Fagor enpresa; eta hirugarren babesle indartsua, Galizian dagoen baina euskal

sustraiak dituen Jay enpresa. Gatzako Udalak ere dirua jarri du, Aretxabaletako zein Esko-

riatzako Udalek bezala.

Aurtengo Euskal Herriko Itzulia apirilaren 7an hasi eta 11n bukatuko da. Azken etapa Bizkaitik etorri eta Arrasaten izango du helmuga, Gari-bai kalean. Arratsaldean erlojuaren aurkako froga egongo da jokoan: Fagor zentraletik Gatzaga gaineraino 13 kilometroko ibilbidearekin. Txirrindulariei dagokienez, profesional mailako onenak izango dira Olano, Riis, Berzin...

Erdi lotuta daude Euskal Herriko itzuliko azken etapako nondik norakoak baina orain zein pauso eman behar dituzte antolatzaileek?. Etxaberen berbetan koordinazio lanak baino ez dira falta: hesien arazoa zehaztu, laguntzeko jendea bilatu, azken lan honetan zikloturisten laguntza jasoko dute eta erlojuaren kontrako etapa finkatu.

Antolatzaileek otsaileko lehen astean prentsaurrekoa emango dute itzuliaren berri eman eta herritarren laguntza eta babesa jasotzeko.



Construcciones Canas Esteban futbito taldeak beste txapelketa bat poltsikoratu

Construcciones Canas Esteban taldeko jokalariek gazteek berriro euren maila erakusteko aukera izan dute. Aretxabaletako Peña Zubik antolatu eta Arrasate Kirolakek babestutako futbito txapelketan Arrasateko taldea atera zen garaile. Guztira zazpi taldek hartu zuten parte. Construcciones Canas Esteban taldeak neurketa guztiak irabazi zituen eta finalean 6 eta 2 menperatu zuen Kurtzebarri. Merezitako txapelkunak beraz arrasatearrak!



Gero eta gutxiago falta da lehen fasea bukatzeko eta inoiz baino partidu gehiago jokatu dira bigarren faserako txartela eskuratuko duten taldeen izenak jakiteko. Txapelketan hainbat talde kanpoan geratu bada ere, ez da iskanbila aipagarririk gertatu. Sorpresa handiena Argi Ibilik, betiko faboritoak eman zuen txapelketatik kanpo geratuta baina ezustea gaitzuta berri normaltasuna da nagusi Zaldibarren.

Ondo babestutako jokaldia

Laburrak

■ BESTE TALDE BAT KANPORATUTA

Dagoeneko bost talde daude Zaldibar Txapelketatik kanpo. Azkena Anbotoste KT izan da. Domekan goizeko 9etan Tronkoteaken kontra neurtu behar zituen indarrak baina jokalaria ez ziren aurkeztu. Anbotosterekin batera Kaxi Ganamos, Argi Ibilik, Iluna Taberna eta Rotor de Bolbogrado daude txapelketatik kanpo, arrazoia bera: ez aurkeztea.

■ ATSEDENA

Bost talde kalean daudenez beste bost taldek atsedena izango dute 14. ihardunaldian. Berango Sukaldeak, Ganbelas, Bukanak, Danok Lagun eta Hireik asteburu lasaia igarotzeko aukera izango dute.

■ INTERESGARRIENAK

14. ihardunaldirako hiru neurketa azpimarratuko ditugu. Zaldibarren 12etan zapatuan Totemen etsaia Galartza Kontenedoreak izango da. 5etan AC Surcos eta MSM Ingenieria Integral izango dira nor baino nor eta ordubet beranduago Viboras eta Etxemobel.

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • ARETXABALETA

Tel.: (943) 79 24 58

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

AG AMAGARA

5. urteurrena dela eta abenduaren 30ean **100.000 pta.** balio duen estetika tratamenduaren zozketaren irabazlea **MARIBEL MORENO MARTINEZ** izan da. Zorionak eta mila esker parte hartu duzuen guztioi!

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Irati STS	13	12	0	1	78	22	24
Betrayer	13	11	0	2	83	29	22
Aurrera Bolie	13	10	0	3	79	41	20
Lorategi Potroak	13	9	2	2	50	32	20
Galartza kont.	13	9	0	4	57	36	18
Pipwhis	13	9	0	4	66	48	18
Arrogoi tab.	13	9	0	4	49	48	18
DKB	13	7	3	3	48	33	17
Totem	13	7	1	5	60	39	15
Onaniereng	13	7	1	5	41	52	15
Abinagraus	13	6	2	5	63	41	14
Ojo Avisore	13	6	1	6	59	46	13
Baneuko	13	5	2	6	30	38	12
Me la pela	13	5	1	7	42	38	11
Potrosorri	13	5	1	7	43	50	11
Leya	13	5	1	7	42	58	11
Berango Sukald.	13	4	1	8	51	62	9
Kriskibalda	13	2	2	9	30	64	6
Alai gozokiak	13	1	4	8	26	68	6
Viboras	13	2	0	11	42	72	4
Etxe Mobil	13	1	0	12	12	102	2
Kaxi Ganamos	13	0	0	13	3	33	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Naranja Mecanica	13	12	0	1	100	27	24
Cerveceria Leniz	13	11	1	1	83	21	23
Insert Coin	13	10	1	2	67	23	21
Okoretegi	13	9	3	1	77	27	21
Argi Ibili	13	10	0	3	94	29	20
Ke Oxtias!!	13	8	3	2	54	37	19
Jotakabau	13	7	2	4	45	54	16
Los Innombrables	13	5	5	3	57	51	15
Motz	13	6	2	5	46	49	14
Los Heredia	13	6	1	6	55	51	13
Diego Antonio	13	6	0	7	62	56	12
Pepelus	13	5	2	6	53	50	12
ZZPPW7	13	4	4	5	62	65	12
Fosforos	13	5	2	6	56	61	12
La mosca gao	13	4	3	6	60	69	11
Perrahotsa	13	4	3	6	36	44	11
Sobredosis de Tx.	13	4	1	8	38	63	9
Gualtrapas IK	13	4	1	8	39	68	9
Kinder Konpresa	13	2	1	10	36	87	5
Ganbelas	13	2	0	11	43	73	4
Elisabeth	13	0	2	11	29	113	2
Hapoei Jamon	13	0	1	12	25	99	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Sortu Informatika	13	10	2	1	68	31	22
MSM Ing. Int.	13	10	0	3	63	36	20
AC Surkos	13	9	1	3	106	45	19
Nuevo taberna	13	8	3	2	68	40	19
Txeyenex	13	8	3	2	61	38	19
KK Jauriaritzari	13	9	1	3	53	49	19
Bedarreta tab.	13	9	0	4	51	31	18
Sokoakoak	13	8	1	4	82	50	17
Orlando Piratas	13	8	1	4	57	54	17
Koka Juniors	13	5	3	5	55	52	13
Adelaida	13	6	1	6	50	51	13
Danok Lagun	13	5	3	5	41	47	13
Los Dimy	13	6	0	7	53	56	12
Hirei	13	6	0	7	41	61	12
Lautherbrunnen	13	5	0	8	39	63	10
Tronkoteak	13	5	0	8	27	52	10
Cartonajes Igamo	13	3	2	8	39	44	8
Anbotoste KT	13	4	0	9	32	52	8
Borrock'n roll	13	3	0	10	64	70	6
Bukanak	13	3	0	10	39	70	6
Rotor de Bolbogr.	13	1	1	11	7	46	3
Iluna taberna	13	1	0	12	31	89	2

Laburrak

■ MSM INGENIERIA INTEGRAL TALDEAREN ZATZAT ASTEBURU BELTZA

Igandean goizeko 11etan MSM eta Txeyenex izan ziren aurrez aurre. Partiduan bi lesionatu egon ziren eta biak MSM taldekoak. Santi Aranak ateko zutabearekin zartada hartu zuen buruan eta hiru puntu eman zizkieten; Gomixek sudur-trenkala apurtu zuen. Azken honi ebakuntza egin zioten astelehenean baina une hone-tan ondo dago.

■ BI GOLEADA NAGUSI

Azken ihardunaldian Kinder Konpresa eta Naranja Mekanika taldeen arteko partiduan sartu dira gol gehien. Naranja Mekanikak 12 eta 5 irabazi zuen. Gol kopuru bera Totemek sartu zion Etxemobeli.

Emaitzak

A taldea

Arrogoi taberna 4 - Ojo Avisore 3
 Kriskibalda 1 - Betrayer 10
 Irati STS 4 - Abinagraus 3
 Lorategi Potroak 2 - Leya 0
 Alai Gozokiak 4 - Potrosorri 5
 Aurrera Bolie 6 - DKB 4
 Baneuko 4 - Pipwhis 5
 Berango Suk. 4 - Onaniereng 5
 Galartza Kont. 1 - Kaxi Ganamos 0
 Etxe Mobil 1 - Totem 12
 Me la pela 8 - Viboras 1

B taldea

Ganbelas 2 - Ke oxtias 4
 Insert Coin 1 - Argi Ibili 0
 Motz 2 - Okoretegi 5
 ZZPPW7 4 - Jotakabau 5
 Los Innombr. 4 - Cerv. Leintz 4
 Kinder Kon. 5 - Naranja Mek. 12
 Sobredosis de Txeira 4 - Pepelus 7
 La mosca Gao 2 - Los Heredia 2
 Diego Antonio 9 - Gualtrapas 1
 Hapoei Jamon 7 - Elisabeth 7
 Perrahotsa 2 - Fosforos 6

D taldea

Orlando Piratas 1 - Iluna Taberna 0
 Bedarreta Taberna 3 - Lauther. 5
 Danok Lagun 2 - Sokoakoak 4
 Cart. Igamo 1 - Rotor De Bolbo. 0
 MSM Inge Integral 2 - Txeyenex 3
 Nuevo Taberna 5 - AC Surcos 5
 Koka Juniors 3 - KK jauriaritzari 4
 Sortu Inform. 6 - Adelaida Aldibi 5
 Anbotoste 0 - Tronkoteak 1
 Borrock Roll 1 - Hirei 2
 Bukanak 6 - Los Dimy 7

Hurrengo partiduak

14. ihardunaldia

Urtarrilak 18. Larunbata

ZALDIBAR

8.50 Leya - Irati STS
 10.00 Okoretegi - Insert Coin
 11.00 Jotakabau - Motz
 12.00 Totem - Galartza Kontenedoreak
 13.00 Ojo Avisore - Me la pela
 14.00 Lautherbrunnen - Orlando Piratas
 15.00 Onaniereng - Baneuko
 16.00 Ke Oxtias - Perrahotsa
 17.00 AC Surcos - MSM Ing Integral
 18.00 Viboras - Etxe Mobil
 19.00 Txeyenex - Cartonajes Igamo

Iturripe A

12.00 Pipwhis - Aurrera Bolie
 13.00 Adelaida Aldibi - Koka Junior
 14.00 Los Dimy - Borrock Roll
 15.00 Fosforos - Hapel Jamon
 16.00 Sokoakoak - Bedarreta Taberna

Iturripe B

13.00 Los Heredia - Sobredosis de Txeira
 14.00 Potrosorri - Lorategi Potroak
 15.00 Elisabeth - Diego Antonio
 16.00 Cerveceria Leintz - ZZPPW7

Urtarrilak 19.

Igandea

8.50 Tronkoteak - Sortu Informatika
 10.00 Abinagraus - Kriskibalda
 11.00 Naranja Mek. - Los Innombrables
 12.00 Betrayer - Arrogoi Taberna
 13.00 Gualtrapas - La Mosca Gao

Iturripe A

11.00 Pepelus - Kinder Konpresa
 12.00 KK Jauriaritzari - Nuevo taberna
 13.00 DKB - Alai Gozokiak

PEPA BOJÓ (PSIKOLOGOA)

“Menopausian hormona

Udaletxeko Emakume Sailak menopausiari buruzko tailerra antolatu du. Urtarrilaren 21ean hasi eta martxoaren 11ra arte luzatuko da aste-artero 4.30etatik 6.30etara. Pepa Bojó psikologa eta psikoterapeutak zuzenduko du tailerra. Menopausiaren inguruan dauden mamuak uxatzen eta ariketa praktikoak egiten irakasten saiatuko da.

— Zelako tailer mota izango da Arrasaten emango duzuna?

— Zortzi sesio izango dira eta bakoitzak bi ordu iraungo du. Astean behin elkartzeko naiz emakumeekin. Tailerrean menopausiarekin zerikusia duten hainbat gai ikutuko dugu eta tailerrean emakumeek euren esperientziak kontatu eta konpartituko dituzte. Ariketak ere egingo dira, oso praktiko-

ak, arnasketa eta gorputz ariketak adibidez. Uste dut ariketa horiek bizitza kalitatea hobetzen lagundu dezaketela, arnasketaren bidez adibidez, erlajatzen ikasi daitekeelako. Bestalde, menopausiarekiko emakumeek duten jarrera ikusteko beste ariketa batzuk ere egingo dira. Ariketa hauen bidez, menopausia zer den, zelako beldurrak dauden, ze mito... guzti horretaz erreflexioa egingo da.

— Ze mito dira menopausiaren inguruan dauden hoiak?

— Nire ustez mitoen arrazoa menopausiari buruz dagoen desinformazioa da. Emakumeok adin horretara heltzen garenean, egoera arazotsu bat bezala bizi izaten ditugu urte horiek

baina errealitatean, menopausia, fenomeno naturala da. Adibidez: neska bati lehe-

nengo aldiz hilekoa etortzen zaionean ez da dramatizatzen; aldiz emakume bat hilekoa galtzen hasten denean erabat dramatizatzen da. Bi prozesuak naturalak dira eta horrela u-



“Menopausiaren inguruan dauden mitoen erruduna desinformazioa da, menopausia fenomeno naturala da eta”

...a gehiegi hartzen da”

tu behar dira.

— Nola sentitzen da emakumea menopausiaren aurrean?

— Gaixo sentitzen da eta medikura joaten da, horregatik dago menopausia hain medikalizatua. Hori argitu egin behar da, menopausia ez baita gaixotasun bat. Egia da menopausian deskalzifikazio handia gertatzen dela hezurretan, osteoporosia, eta kasu horretan medikuarengana joan beharra dago.

— Menopausiaren ondorioz emakumearen-gan aldaketak gertatzen direla esaten da. Zein aldaketa dira horiek?

— Hilekoa joaten hasten da eta hormona alda-

keta bat dago. Ondorioz trastorno nerbioak gertatzen dira batzutan: emakumea irritsuago egoten da, baita sentiberago ere eta animoan gorabeherak edukitzen ditu. Hau denbora batean gertatzen zaio, beraz, ez da betirako. Bestalde, insomnio arazoak ere izaten ditu eta baita itomena ere. Gertatzen dena da, arazo hauek ez direla batera larriak baina emakumeak dutena baino garrantzi handiagoa ematen badie, itsutu egiten da. Aldaketa hauek berriz, era natural batean hartzen badi-

ra problematika ere horrela tratatzen da.

— Menopausiarekin emakumeak produktiboa izateari uzten diola esaten da...

— Bai, hori esaten da eta hori pentsatzeak arazoak ekarri diezazkioke emakumeari. Esaten da emakumezko bat emakume dela umeak ekarri ditzakeen artean. Emakume batek berriz, hilekoa joaten zaionean ezin du umerik ekarri eta ondorioz jende askok uste du emakumearen sexualitatea epe horretan amaitzen dela. Horrek esanahi asko du eta hortik arazoak etor daitetzke. Emakume askok pentsatzen du “dagoeneko ez dut balio, ezin dut nire papera bete...” eta hortik arazo psikologikoak sortzen dira. Depresio asko ematen dira. Dena

dela, hortik sortzen diren arazo psikologiko gehienek ez dute zerikusi zuzena menopausiarekin.

— Medikuek irtenbiderik jar diezaiokete menopausiarri?

— Tratamendu hormonalak jartzen dituzte. Gaur egun menopausian dagoen emakume portzentai handi bat tratamendu hormonalekin egoten da eta tratamenduek oso ondo funtzionatzen dute.

— Ez litzaioke gorputzari bere martxa naturalean utzi behar?

— Beno, ez dakit. Nire ustez kasu askotan ez litzateke beharrezkoa izango tratamendu hormonalak, hormona gehiegi hartzen da eta. Batzutan dieta aldaketak, bitamina ekarpenak eta gimnasia apur batek menopausiaren ondorioak arindu ditzakete. ■

“Menopausian emakumeei sortzen zaizkien arazo psikologiko gehienek ez dute zerikusi zuzena menopausiarekin”



ARRASATE GASOLINDEGIKO ZOKKETA

Abenduaren 22ko Loteriarekin batera egin zen zozketaren irabazlea *Alberto Garate* izan da. Saria, Gabon otar eder bat izan da. Zorionak!



ESTACION DE SERVICIO

ARRASATE

URTARRILA

Hilabete kalmosoa baserritarrentzat

Baserrian sasoi lasairen bat egotekotan hori urte hasierakoa izango litzateke. Eguna motz samarra izanda eta eguraldiak konfiantza handirik eskaintzen ez duenez, baserritarrek lasai hartzen zuten, kasu batean izan ezik: ardi-lana zegoen etxeetan.

Bildotsak abenduan hasien ziren jaiotzen eta urtarrilean segida izaten zuen aurreko martxak. Ardiak zeuzkaten baserrietan lana gogor egin beharra egoten zen, jaiotzeko ez dute eta bildotsek ordu jakinik izaten. Erditzeen ondorioz, ardiak jeisten ere lana, gero saldu, edo eta gatzatua edo eta gazta egiteko.

Ardirik ezean, lasaitasuna baserrietan. Lanei dago kienez, sasoi pobrea dela esan daiteke. Basoetan egoten zen zereginen bat edo beste, arbolak botatzea adibidez, gero egurra sutarako edo zeztagintzan erabiltzeko. Nolabait, lanei aurre hartzen zitzairen eta gerorako egurra prest eduki-



Urte hasiera honetan ardi-lanak izaten dira garrantzitsuenak baserrietan.

tzea izaten ei zen. Gaur egun, berriz, lan erantsia izaten da basoan, aipatutako egur bilketari pinadien landaketa gehitu behar zaio eta, landatzen dutenek behintzat. Bistan dago pinadien landaketak jarraitzaile ugari izan duela azken hamarkadetan, ingurura begi-

ratzea besterik ez dago.

Ortu lanen gainean ere ezin gauza gehiegi esan, ia ez da ezer egiten eta. Berakata eta babak lehendik sartuta, apur bat lurra landu besterik ez. Sasoi batean, lurra udaberrian artoa landatzeko prestatzen zen, arto sail galantak

ikusten ziren; orain, berriz, gutxiago landatzen da.

Kanpoko lanetan zeregin handirik ez zegoenez, gure baserritarrek etxe barruko lanak egiteko aprobetxatzen zuten; gero erabili beharreko lanabesak egin edo konpondu, arteleaz lan egin....



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Euskaldun izan nahi dugulako
EUSKAL HERRIA
EUSKALTEGI BIHURTU DUGU

ARRASATEKO
ERDU-AEK EUSKALTEGIA
EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak
 EGA eta ALFABETATZE
 Matrikula epea:
 Urtarrilak 31

Gurasoentzat
 klase bereziak
INFORMAZIOA ETA
MATRIKULA
ERDU-AEK EUSKALTEGIA
Garibai Kalea 14, 3. Tel.: 77 03 69

UDALAREN LAGUNTZAZ



Izena eman
 Euskaltegi eta barnetegietan!

(Barnetegiak FORUn eta ONDARROAn,
 Tel.: 94/625 35 96)



LORAMENDIN

- **Forro polarrak**
- **Txamarrak**
- **Txandalak**
- **Sudaderak**
eta abar

BEHERAPENAK!

Zapatilak
Mendiko botak
Futboleko botak

San Andresen eta Garibaien

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Aretxabaletako Portasol auzoan pisua salgai. Jantzita. Tel.: 79 78 63 (lan orduetan) eta 79 06 84 (lan ordutik kanpo).

• Aretxabaletako San Migel kalean pisua salgai. Tel.: 79 02 09.

• Etxe bat salgai San Josepen. Tel. 77 08 06.

• Etxe bat salgai Las Malvinasen. Tel. 77 08 06.

• Etxea salgai Elkano kalean. Tel. 77 13 02.

2. Erosi

• Pisu merke bat erosiko nuke Arrasaten. Erguinen edo erdialdetik gertu. Tel.: 79 39 92.

3. Errentan emateko

• Pisua alokagai Munarren. Tel.: 79 77 85.

• Berri berria dagoen baserria alokagai Zarimutzen (Eskoriatza), konpartitzeko ere gertu nago. Tel.: 58 50 17.

• Pisua alokagai Donostiako Egia auzoan. Tel.: 79 25 16.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko lehenengo solairuan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

• Roneoko etxeetan garaje itxia eta bikoitza salgai. Tel.: 79 14 66.

• Garaje itxia salgai Sofa Leku azpian, Musakolan. Tel.: 77 13 02.

• Larreen garaje itxia salgai. Tel.: 79 92 31 / 79 23 26.

• Zarugalde 3an garaje plaza saldu edo alokatzen da. Tel.: 79 23 06.

9. Errentan emateko

• Larrea aldean garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 69 41.

• Maala kalean garaje itxia alokagai. Tel.: 79 42 13.

• Garaje itxia alokagai Roneon. Dei egin gauez 10etatik aurrera. Tel.: 79

ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxe konpartituak
- Bestelakoak

GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

19 64.

10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel.: 79 22 92.

LOKALAK

12. Saldu

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokala baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

16. Bestelakoak

• Erdiko kalean lokal komertziala traspasatzen da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Titulodun eta esperientziadun neskek klase partikularrek emango lituzke, DBHkoei nahiz BUPekoei. Klaseak erdaraz. Tel.: 79 79 84. Kontxi.

• Ingeleseko klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 79 03 83.

• Fisioterapeuta diplomaduna etxeko terapiak egiteko gertu: masaiak, erreabilitazioa, drenaje linfatikoa... Tel.: 79 56 86. Ane.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Esperientziadun neska kamarera lanetarako gertu. Tel.: 79 61 16.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskalduna gertu dendarri

edo kamarero lanetarako. Tel.: 79 37 68.

• Neska esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo agureak zaintzeko gertu. Tel.: 79 27 48.

• Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 04 10.

18. Eskaerak

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Pertsona euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 04 44.

• Musakolan etxean injekzioak jartzeko pertsona bat behar da lehen bailehen. Tel.: 79 33 10. Juan.

• Esperientziadun neska euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 02 81.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gaztelera. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Irakasle titulodunak lehen hezkuntzako eta DBHko klase partikularrek emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Mari Jose.

• EGA titulodun ikasle batek LH, DBH eta REMeko klase partikularrek emango lituzke. Dei egin 7etatik aurrera 79 43 56 telefonora.

• Klase partikularrek ematen dira. Tel.: 79 98 68 eta 79 40 57.

• Magisteritzako ikasle batek klase partikularrek ematen ditu. Tel.: 79 52 31.

• Klase partikularrek ematen ditut. Irakasle titulua eta musika irakasle titulua ditut. Tel.: 79 35 13.

• Klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 77 04 98.

21. Eskaerak

• Marrazki geometrikoko klase parti-

kularrak hartuko nituzke. Tel.: 798333.

- Alemanezko klase partikularak hartuko nituzke. Tel.: 71 48 90.

MOTORRA

23. Saldu

- F-6 Renault furgoneta salgai. 130.000 pta. Negozia garria. Tel.: 79 03 45.

- BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deitu-ko dizut.

- Ibiza SXI salgai. SS-AD. Egoera onean dago. Tel: 71 48 02. Gaueko 10etik 11etara deitu.

DENETARIK

26. Saldu

- Fagor markako kalentadorea eta berogailu japoniar bat salgai. Tel.: 79 81 25. Gauez dei egin.

- Gela handiak berotzeko gai den aku-

muladore elektrikoa salgai. Tel.: 79 23 06.

- Mendiko trabesiako botak salgai. Dashcstein markakoak. 38 zenbaki-koak. Tel.: 79 32 98. Gauez.

- Mendiko elurretako plastikozko botak salgai. AFS 101 Carboni Fiber-Asolo (39. zenb.) eta AFS 102 Fiber-Glass (44. zenb.). Tel.: 79 22 99. Gauez.

- Neskatiendako bizikleta tolesgarria eta 8-12 urte bitartekoendako liburu sorta oso merke salgai. Tel.: 79 82 47.

- Goi kargako garbigailua salgai. Tel.: 77 05 77.

- Kerosenozko berogailu japoniarra salgai. Tel.: 79 03 67.

- Egongelako altzariak, egoera onean, salgai. Prezioa negoziatzeko. Tel. 79 01 33 edo 989-76 49 66.

- Astrajolas ordenagailua salgai, 100 jolasekin, oso merke. Tel. 79 34 79.

- Egongela eta jangelako altzariak saltzen ditut. Zumezkoak dira eta egoera onean daude. Tel.: 79 71 35. Gauez.

- Likidazioagatik argiontzi eta mahaitxo lanparak salgai. Tel: 79 25 96.

- Bi mostradore eta bitrina salgai. Tel: 79 99 41 edo 79 25 26.

- Fender gitarra anplifikadorea salgai. 38 W.A. Reverd. Etxean erabili dut bakarrik. 20.000 pta. kableak eta "chorus" pedala barne. Tel: 79 25 10. Igor.

- Eskalatzeko Boreal markako katu hanka salgai. 43-44 zenbakia. Oso gutxi erabilia. 5.000 Pta. Tel: 79 25 10. Igor.

- Compact irakurle bi salgai. Tel: 79 76 88. Prezio interesgarria.

- Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel.: 79 37 82.

27. Erosi

- Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

- Auto barruan umea eramateko aukitoxa erosiko nuke. Gaueko Betatik aurrera. Tel.: 79 23 69.

- Kitarra elektrikoa eta anplifikagailua erosiko nituzke. Tel.: 74 37 23.

- Bigarren eskuko kuna bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

31. Galdu

- Iraileko lehenengo astean kartera txiki batean eraztuna galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 79 15 24 telefonora. Eskertuko da.

- Abenduaren 17an urrezko hiru putsera galdu nituen Biteri aparkalekuan. Tel: 76 51 67. Eskertuko da.

32. Aurkitu

- Azaroaren 16an Astore markako polo urdina topatu genuen Iturripen. Tel.: 79 91 22. Gauez.

- Urtarrilaren 8an giltza batzuk aurkitu nituen Arbolapetan. Giltzak "Deportes Oto" jartzen duen kartera baten barruan daude. Tel: 79 86 28.

33. Bestelakoak

- Ipuin pertsonalizatuak egiten ditut nahi den hizkuntzan. Umeendako opari paregabea! Tel.: 79 47 54.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiarene unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tel.: 79 20 18

Agatha Christie-ren *Xagu tranpa* Amaian

Hiru egun jarraian, euskaraz eta erdaraz eskainiko da antzezlan

Txalo Produksioak-ek Xagu Tranpa antzezlanarekin orain arte eskaini dituen emanaldi guztietan antzokiak bete egin dituela esatea izan daiteke akaso daturik azpimarragarriena obraren arrakasta ulertu ahal izateko. 96ko urriaren 10ean antzeztu zuten lehen aldiz Beasainen eta gaur arte Donostiako nahiz Bilboko antzokiak txiki geratu dira Agatha Christieren obraren bertsio euskaldunarentzat.

Datuok irakurri ondoren tentatuta sentitu denik balego, esan behar zaio arrasatearrek gaur bertan asetu dezaketela kuriositatea eta gogoia Amaia antzokian, eta gainera, gaur joaterik ez duenarentzat, Arrasateko udalak igandera arte luzatu duela antzerkia ikusteko aukera. Jon Garaik kultura teknikariak joan den asteazkenean emandako prentsaurrean aipatu zuenez "antzerkia jarraian hiru egunetan eskaintzeko arrazoi bat herrian antzerkiaren jarraipena bultzatzeko egin nahi den ahalegin berezia da".

20.000 IKUSLE

Txalo Produksioak taldea berria da eta Xagu Tranpa bere lehen lana. Beste antzerki talde batzuetatik sortu da Txalo, Bederen 1, Karraka edo In Fraganti taldeetatik. Xabier Agirre aktoreak prentsaurrean azaldu zuenez, suspentse eta



misteriozko obra bat egiteko gogoak eraman zituen idazle ingelesaren obra aukeratzera. Ramon Barea bilbotarrak zuzendu du eta gainera, orijinalaren bertsio bat egin du. Ramon Barearen Xagu Tranpan ez daude 8 pertsonaia, 7 baizik eta aparte, Agatha Christiek berak paper bat du.

Txalo Produksioak taldeak arrazoiak ditu pozez gainezka egoteko. Euren kalkuluen arabera 20.000 bat lagunek ikusi dute honezkeroko obra eta dagoeneko 97rako

150 emanaldi hitzartu dituzte estatuan.

Esan behar da obrak berak Londresen 44 urte daramatzala etengabe egunero bi aldiz antzezten Picadilly plazako St. Martin's antzokian.

Arrasaten emanaldiak gaur euskaraz 10.30etan, bihar gazteleraz ordu berean eta etzi gazteleraz arratsaldeko 8etan izango dira. Sarrerak 1.000 pta.tan eta Gazte Txartelarekin 800ean salduko dira.

Nor da hiltzailea?

Thrillera Victoriano estiloko hotel bateko gela eder batean gertatzen da. Hotel horretara bezeroak helduz doaz baina neguaren erdian elurra gogor ari duenez, inkomunikaturik geratzen dira bertan. Pertsona bat hilik agertzen da. Nor da hiltzailea?

Antzokira hurbiltzen diren lagunek egin beharko dute ikertzaile lana. Sarreran banatuko den txarteltxo bat bete ahal izango da antzerkiaren atsedendaldian hiltzailea nor den asmatzeko. Irabazleen artean Londresera bidaia zozketatuko da.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

AINHOA eta ASIER GOZATEGI

“Aurten disko berria aterako bagenu, aurreko biei bizitza moztuko genieke”

AEDk, Udalaren laguntzarekin, Gozategi taldea ekarriko du datorren ostiralean Amaia antzokira. *Gozategiz Blai* ikuskizuna eskainiko du taldeak, Euskal Herriko dantzari onenekin. Horrenbeste muxutxu banatu ondoren, hasi berri den urte honetan disko berririk ateratzeko asmorik ez dutela diote, izan ere, aurreko bien salmentak gora jarraitzen ei du etengabe. Asier eta Ainhoa Gozategi anai-arrebak egin dute berba horren gainean.

— Zelako emanaldia eskainiko duzue?

— Ainhoa: Musika eta dantza batera joango dira, Gozategi's Blai ikuskizun guztietan bezala. Euskal Herriko dantzari onenak talde batean bateratu ditugu eta ohiko dantzak nahiz berriak aurkezten ditugu.

— Asier: Ikuskizun berezi bat da eta ordu eta erdi irauten badu ere, motz egiten da.

— Ze asmo dituzue 97rako?

— Asier: Ez dugu disko berririk ateratzeko asmorik. Lehenengo diskoa asko esplotatu genuen eta udan asko entzun zen. Gero jendeak beste disko bat eskatzen zuen eta orduan bigarrena atera genuen. Joan den udan diska berriko kantak esplotatu ditugu, izan ere, lehenengo diskokoak gehiago esplotatzea ez zen komeni. Bigarren diskoa asko entzuten da oraindik eta ez dugu uste hirugarren bat ateratzea komenigarria denik. Berri bat aterako bagenu, aurreko biei bizitza moztuko genieke eta ez du merezi, oraindik asko entzuten dira eta. Behar bada 97an, single bat aterako dugu abesti pare batekin baina diska berrirako 98ko



udaberrira arte itxaron beharko da.

— Ainhoa: Bestalde esan behar da aurtengo martxoko Korrikako abestia egin dugula. Hitzak Andoni Egañak egin ditu eta guk musika. Hile honen amaieran hasiko da kanta entzuten.

— Zer moduz joan da bigarren diskoaren salmenta?

— Ainhoa: Oso ondo. Abenduko datuen arabera, 25.000 disko zeuden salduta eta jakin badakigu, kopuru horrek gora jarraitzen duela. Bestalde, bigarrena grabatzen ari ginela, lehengo diskoko 17.000 unitate zeuden salduta baina disko berria ateratzean lehengoaren salmenta hazten hasi zen eta gaur egun badakigu 20.000ko kopurua pasatu dugula.

— Zein da Gozategiren arrakastaren sekretua?

— Asier: Batzutan entzun izan dugu musikari txarrak garela, abesten ez dakigula, kantak oso errazak direla... dena negatiboa baina gero, begira, arrakasta daukagu! Nola ulertu kritika horiek?

aste gazte

■ BEKAK

• Nazioarteko Merkataritzan espezializaturiko kazetaritza bekak kaleratu dira. Epea: urtarrilak 20.

• Euskal Autonomi Elkarteko unibertsitateetan ikasten zaudeteno, eguneroko garraio gastuak ordaintzeko ohi kanpoko dirulaguntzak eskatzeko epea urtarrilaren 22an amaitzen zaizue.

• Eusko Jaurlaritzak, 1997 urtean zehar, nekazaritza arloan, ikerketa zentroetan praktikak burutzeko bekatarako deialdia egin du. Lizentziatuei nahiz L H II titulua dutenei zuzendua. Epea: otsailak 2, maiatzak 30.

■ LANA

• Mendigorrian, bertako Udaletxerako idazkari bat behar da. Eskariak bidaltzeko epea: urtarrilak 23.

• Oñatiko Udalak, udaltzain lanpostu bat kaleratu du. Epea: urtarrilak 28.

• Mutrikuko Udalak, ekonomi finantz alorreko teknikari ertain baten lanpostua bete nahi du. Eskariak bidaltzeko epea finkatu gabe dago oraindik.

■ LEHIAKETAK

• Kontakizun labor erotikoen lehiaketa antolatu du “Sex Haizegoa”k. Epea: urtarrilak 31.

• Madrilgo Plataforma Feministak, emakumeei zuzenduriko argazki lehiaketa antolatu du, emakumearen bizitza gaitzat hartuta. Lanak aurkezteko epea: urtarrilak 31.

• Igo Tafalla Hiria Gazteendako Komiki Sariketa antolatu du bertako Udalak. Epea: urtarrilak 31.

Informazio gehiagorako:

GAZTE ZERBITZUA


☎ 77 00 65

Gozategi taldeak aurtengo Korrikaren kanta grabatu du. Letrak Andoni Egañak egin ditu.

■ Horoskopoa

- **Aries** Esperientzia ez da guztia. Adinak ere asko esan nahi du.
- **Taurus** Urtea txarto hasi duzu. Berriro ere hankasartze bera?
- **Gemini** Argi gorria piztuko dizute horrela jarraituz gero.
- **Cancer** Aste Santuko oporrak antolatzen hasi beharko duzu.
- **Leo** Egutegiari askotxo begiratzen diozu urte hasieran.
- **Virgo** Hemengo elurra gorrotatu eta kanpora elur bila joan?
- **Libra** Lagun barik geratuko zara jokera horrekin jarraituz gero.
- **Scorpio** Zure autoa ez dago egoera onean. Begiratu ondo.
- **Sagitaris** Iazko urtea ondo joan zitzaizun baina aurtengoa hobeto.
- **Capricorn** Ilea jauzten hasi zaizu baina pasako da.
- **Aquarius** Barre eta barre 100 kilo hartuko dituzu.
- **Piscis** Zaindu zure burua eta ez zure gorputza.

■ Gurutzegrama



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Zain-hori. 9. Base-ritar. 10. Transilvaniako konte famatua. 11. Fleming, "077" sortu zuenaren izena. 13. Ukatzeko hitza. 15. (Ald.) Bat eta bat. 16. Txakur. 17. Zekena. 20. Igarri.


Bertikalak 1. Jon, ATBtik ETBra pasatu zen. 2. Zein gauza. 3. Gai. 4. Higuin. 5. Likiduen neurgailua (2,016 litro). 6. (Ald.) Gehiegi. 7. Garo. 8. Hortzak finkatzen ditu. 12. Aranondoaren fruitu. 14. Ohorezko hitzmate. 16. Egokia. 18. AZTIaren kontonanteak. 19. (Ald.) Musika nota.

Horizontalak: 1. Andueza, 2. Zer, 3. Ekai, 4. Nakatz, 5. Azunbre, 6. (Ald.) Lar, 7. Ira, 8. Oi, 12. Aran, 14. Zim, 16. Ona, 18. Zi, 19. (Ald.) Mi.
Bertikalak: 1. Azenario, 9. Nekazari, 10. Drakula, 11. Ian, 13. Ez, 15. (Ald.) Bi, 16. Or, 17. Ziz-tina, 20. Antzeman.

ikastaro gazteak

DANTZA KARIBEARAK (salsa, merengue, bachata)

- Otsailaren 3tik martxoaren 19ra
(astelehen eta asteazkenetan)
- Bi maila:
 1. hastapena: ordutegia 7-8.30
 2. hobekuntza: ordutegia 8.30-10
- Matrikula: 4.000 pta.
(2.500 pta. ikasle eta langabetuentzat)
- Plaza mugatuak
- Izen emateak: **Gazte Bulegoan (77 00 65)**



ARRASATEKO UDALA

Gazte Saila ■

■ Mikel Arana Ibabe

BESAIDE MENDIZALE ELKARTEKO LEHENDAKARIA



Urtarrilaren 12an, 31 urte bete zituen. Nekazal inginerutza ikasi zuen eta gaur Foru Aldundiaren Nekazal bulegoan ari da lanean. Ikasten ari zela, pisukoek Txoritxo deitzen zioten, oso gutxi jaten zuelako. Gaur bertan Besaideko lehendakari karguari utzi dio.

1. Zein da zure horoskopoa?
Capricornio.

2. Sinestuna zara? Ez.

3. Animalia bihurtzekotan?

Pantera beltza.

4. Zure akats bat/Gauza on bat? Desordenatua

naiz/Desorden horretan gauzak aurkitzen ditut.

5. Zerk lotsarazten zaitu? Begiraden zentrua izateak.

6. Amets bat? Iparra eta hegoaren arteko desberdintasun eza.

7. Zer kenduko zenuke mundutik? Ejerzitoak.

8. Gertakizun historiko bat? Berlingo harresiaren jausiera.

9. Nor miresten duzu? Aiton-amonak.

10. Zeri diozu beldurra?

Manipulazioari.

11. Zertaz damutzen zara? Ez dut atzera begiratzen.

12. Negar egin duzun azken aldia? Ekuadorren hil zen Mirenen berri jaso nuenean.

13. Zer falta zaio Arrasateri? Lana.

14. Eta zuri? Denbora.

15. Lanbidez aldatzekotan? Mendiko gidari edo kirol medikua.

16. Arrasateko gustoko toki bat?

Etzezarreta.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Kotxea garbitzea.

18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Euskaldunon Egunkaria eta Egin.

19. Gustoko janari bat? Entsalada.

20. Liburu on bat? *El Mundo de Sofia*.

21. Filmerik onena/txarrena? Antonia/*Fanático*.

22. Musika talderik onena/Txarrena? Xabier Lete/Ez dakit.

23. Telebistako programarik onena/Txarrena? *Tercer Milenio*/Ez dakit.

24. Egin dizuten oparirik politena? Buztinezko figura bat.

25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Mendian eta kirola egiten.

26. Oporretarako toki bat? Ezagutzen ditudan lekuetatik, Hegoamerika.

27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Hautsa kentzea.

28. Gomendio bat? Norberaren buruarekin aske izatea.

29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Orain ez naiz gai horri erantzuteko.

30. 200 milioi irabaziz gero? Bidaia on bat egin eta Aramaion baserriko lanetatik biziko nintzateke.



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tel.: 79 79 46 • ARRASATE



PAVIMENTOS AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Erakusketa eta almazena:

Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

MARIANO ANDRADE SIGANO

TAXIA

24 orduko zerbitzua
Hotela / Aireportua /
Ospitaleak...

Tel.: 79 96 87 • Tño mobil: (907) 75 23 85
Anboto, 2-4 ezk. ARRASATE

● **Txitxinpe** ●

Berezitasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

S. CARRASCAL S.L.

Bertan egindako:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82



Ikasturtea bukatzen zela eta, Garagartzako eskolako ikasleek On Ciriaco Jauregi irakaslearekin batera argazkia atera zuten 1935. urtean, auzoko arte zaharraren azpian. 6 eta 14 urte arteko 86 ikasle daude argazkian, eskolan zebiltzanak 100 lagun inguru

ru izan arren.


Argazkian neskak eta mutikoak elkarrekin badaude ere eta irakasle bakarra bazegoen ere, eskolan ez ziren elkarrekin egoten. Irakurketa, idazkera, matematikak, geografia, erdal gramatika etab. ikasten zuten, ez erlijiorik, ez euskararik eta ezta historiarik ere.

Urte horretan bertan Gesalibarren neskendako eskola ireki zen, Isabel Iturbe irakaslearen zuzendaritzapean, gaur Atxabalpe dagoen inguruan. Urte batzuk beranduago itxiko zen eskola hura eta baita Garagartzakoa ere, orain Elizondo kafetegia dagoen tokian bertan zegoena.

Urtea: 1935

Argazkia: Juanito Leibar.

Informazioa: Juanito Leibar.



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

MULTIOPTICAS EIBAR

Ibargarai, 16 - BERGARA
Tel. 76 15 75

Juan Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Tel. 79 29 95

BETAURREKO BILDUMA BERRIA
bonardi '97
«MULTIOPTICAS»eko ESKLUSIBA

2.850

Pta.-gatik bakarrik



ERAMAN EZAZU KUTXATILA DOHAIN

LORTU -TRAVEL CLUB-EKO PROGRAMAREN PUNTUAK «MULTIOPTICAS-EKIN

J. M. Barandiaran Enp. - ORDIZIA
Tel. 88 99 88

Bidebarrieta, 2 - EIBAR
Tel. 20 05 22



EZ BADUZU DENBORA FINKORIK

HIZKUNTZ IKASTARO BAT
EGITEKO
HEMEN DUZU
SISTEMA BAT
EZIN EGOKIAGOA
ZURETZAT

HIZKUNTZ IKASTARO BERRIAK CIM MULTIMEDIA

NOLA FUNTZIONATZEN DU SISTEMA HONEK?

- Ordutegi jarraitua duzu goizeko 8etatik gauko 9etara.
- Zeuk aukeratzen duzu zeure erritmo eta ordutegia.
- Irakasleek jarraipena egingo dizute elkarrizketa-klase eta tutoretza bidez.

CIM MULTIMEDIA

HIZKUNTZAK
IRAKASTEKO
SISTEMA

ELKARRERAGILEA:

MULTIMEDIAZKO
ORDENADORE
BALIABIDEAK,
ELKARRIZKETA
SAIOAK
ETA IRAKASLEEN
TUTORETZA.

ZEIN DIRA SISTEMAREN ABANTAILAK?

- Sistema berria da.
- Sistema egokia da edozein mailatarako.
- Norberak nahi duenean hasten eta bukatzen da ikastaroa.
- Ikasleak ezartzen du bere ordutegia, loturarik gabe.
- Ez duzu klaserik galduko.
- Nahi beste ordu egin ditzakezu gehiago ordaindu gabe.
- Ez daukazu informatikarik jakin beharrik.
- Ez duzu inbertsiorik egin behar: ekipoa geure kontu.
- Irakasleen jarraipena eta aholkularitza izango dituzu tutoretza eta elkarrizketa-klaseetan.
- Prezio ezin hobeak ordainduko dituzu.

**Urtarrilaren
20tik aurrera !!!**

Zatoz CIM HIZKUNTZAK ikustera eta aprobetxa ezazu eskaintza hau:

**ASTEBETE DOHAIN
INSTALAZIOAK
PROBATZEKO**

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS



• Araba Etorbidea, 4
20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: (943) 790132-796554
Faxa: 771354



BEHERAPENAKI!

**UNITED COLORS
OF BENETTON.**

Maalako Errabala, 13 • ARRASATE